**KULTURA: 36KO GERRAN FUSILATUEN OMENEZKO ERAKUSKETA /19**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko apirilaren 11 • IV. urtea

106. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**JUANJO SAN MIGUEL**

*"Hedabideok ikuskizun bihurtu dugu gerra, eta irudirik gordinenak ematea da helburua"* /7

**Goienka2a**
**Jorge Oteiza: jeinu baten harremana gure ibarrarekin**

**Barruan, zure herriko aldizkaria**




**BERGARA**
**Erramu-zapatuko feria bihar, animalia eta postu ugarirekin /6**

**GEHIGARRIA: KORRIKAK GURE IBARREN UTZITAKO IRUDIAK**




XABIER URZELAI

## Metal alorreko langileak greban

Metal arloko grebak %87ko erantzuna izan du Debagoieneko enpresetan. Joan den astean bezala, oraingo astean ere kalera irten dira langileak. Manifestazio jendetsuak egin dituzte, gainera. Argazkian, esaterako, atzo, eguena, Arrasaten egindakoa ikusten da. Metal arloko lan hitzarmenaren gaineko adostasunik ez dute egin sindikatuek eta enpresaburuen elkarteak. Hala, ELAk eta LABek deituta lanuzteak egiten jarraituko dute langileek ondorengo egunotan. /4

**ASTEKO GAIA: NAGUSIEN EGOITZAK /2-3**

# Edadetuen egoitza onak baina beteak ibarrean

- *Debagoienean bost egoitza daude, eta 361 ohe guztira*
- *Nagusiek eta familiek iritzi ona azaldu dute egoitzon gainean*

Bakarrik edo euren familiarekin bizi ezin diren nagusiendako bost egoitza ditugu Debagoienean. Guztira 361 ohe eskaintzen dituzte. Populazioa zahartzen joan den neurrian, egoitza horiek geroago eta eskaera gehiago jasotzen dituzte. Horrek eragin du euren kalitatea hobetzen joan izana, alde batetik; baina, alderdi negatiboan, egoitzok gaur egun beteta daude eta itxoite-zerrendak daude, kasu gehienetan.

Erabiltzaileek iritzi ona dute egoitzon gainean. Izan ere, nagusiei egun osoko arreta profesionala eskaintzeaz gainera –kontuan hartu behar da geroago eta erabiltzaile gehiagok dutela ezintasunen bat–, nagusiei aisialdi aberasgarria eskaintzeko geroago eta baliabide gehiago dituzte. Ibarreko bost egoitzak bisitatu ditu GOIENKARIAk.


SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA
www.forumsport.com
Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate




Erdiko kale 32
ARRASATE
943 79 16 12
GIZONAK
EMAKUMEAK
LUKO
JANTZIAK
Ibai-arteren bazkide
ibai-arte


**ARRASATE**

**Oinezkoendako bi kilometro eta erdiko zumardia zabalik**

Arrasateko Monterron parketik Erguin auzorainoko Gernika Oinezkoen Zumardiaren zatia inauguratu dute oraingo astean. Azkeneko zati horrekin, guztira 2.600 metro ditu Arrasateko bi puntak (Musakola eta Erguin) lotzen dituen oinezkoendako pasealekuak. Aurrera begira Garagartzaraino luzatu gura du Udalak. /6


DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/20-21 • SAILKATUAK/22 • BERRI-ZAKUA/23 • ZERBITZUAK/24 • DENBORA-PASA/25

# Egoitzak, gero eta beteago

- Debagoieneko bost egoitzotako 361 plazak motz geratu dira
- Itxoite-zerrendak dituzte ibarreko nagusien egoitza gehienek
- Erabiltzaile berrien batez besteko adina 80-85 urte ingurukoa da

LEIRE KORTABARRIA

Debagoiendarrok ere gero eta luzaroago bizi gara, eta horrek eragina du hirugarren adinarendako egoitzen funtzionamenduan.

Alde batetik, jakina, itxoite-zerrendak gero eta luzeagoak dira. Debagoienean nagusiendako bost egoitza daude, eta horietatik lauk eskaintza baino eskaera gehiago dituzte. Guztira eskaintzen dituzten 361 plazak motz geratu dira.

**GEHIENAK, EZINDUAK**

Leku kopurua ez da, hala ere, arazo bakarra, ez eta txikiena ere.

Egoitzotan sartzerakoan, pertsona kategoria jakin baten sartzen da, bere kabuz zelan baliatzen den arabera: autonomoa; ezindua; edo ezindu larria, hain zuzen ere. "Orain dela urte batzuk, egoitzotan sartzen ziren pertsona gehienak autonomoak ziren; orain, ordea, gero eta maizago, ezinduak dira", azaltzen du Bergarako Mizpirualde egoitzako koordinatzaile Arantxa Goikoetxeak. Jakina, horrek adinarekin du zerikusia: orain dela urte batzuk arte, egoitzotara sartzen zirenek 65-70 bat urte zituzten; orain, 80-85 urte da batez besteko adina. Goikoetxeak zera gaineratzen du: "Eboluzioa eskailera antzekoa da: nagusien zainketan hainbat maila daude, eta azken maila egoitzak dira", diosku.

**IRITZI ONA**

Nagusiok iritzi ona agertu dute egoitzen gainean, Foru Aldundiak oraintsu egindako inkesta batean. Garbitasuna, aisialdi aukerak eta kokapena baloratu dituzte gehienbat.

*Egoitzetara sartzen diren gehienek adinak eragindako ezintasun motaren bat dute*

*Erabiltzaileek iritzi ona azaldu dute, batez ere, aisialdiari eta garbitasunari dagokienez*



**ITURBIDE / ARRASATE** 98 lagunendako lekua du, eta ibarreko bigarren handiena da Iturbide. Handiena Mizpirualde da, Bergara, Antzuola eta Elgetarako 115 plaza ditu-eta. Hemengo beste egoitzen arazo berbera du Iturbidek ere: plaza guztiak hartuta daude eta ez dago gehiagorendako lekurik, nahiz eta, arduradunek diotenez, une honetan itxoite-zerrenda ez den iraganean bezain luzea.

DEBA GARAIA
ETXE AGENTZIA SAREA
Arrasate – Bergara – Elgoibar – Donostia
**Bulego berria Arrasaten.**
Zarugalde 1
Tel.: 943 77 13 02 – 943 77 14 27
Faxa: 943 79 12 40
API





**SAN MARTIN EGOITZA / OÑATI** Aisialdirako hainbat aukera eskaintzen dituzte Debagoieneko egoitzok: liburutegia, eskulanak… Oñatiko San Martin egoitzako ile apaindegian atera dugu argazki hori. Arduradunek dioskute nagusiondako mesedegarria dela egunean barrena hainbat ekintza egitea.



**MIZPIRUALDE / BERGARA** Egoitza askok dute ariketa fisiko leuna egiteko gimnasio bat. Baina buruko gimnasia egiteko aukera ere badute nagusiok: adibidez, memoria lantegiak, ibarreko egoitza askotan egiten direnak. Aditu baten gidaritzapean, irakurketa eta oroimen ariketak egiten dituzte edadetuok.



**URATS-GAIN / ARETXABALETA** Urats-Gain egoitzak bezala, ibarreko beste egoitzek ere hainbat logela mota dituzte, bizikideen arabera: batzuk bikoitzak dira; ezinduek eurendako baliabideekin hornitutako gela eta bainugelak dituzte; eta autonomoek, kasu gehienetan, logela propioetan bizi izateko aukera izaten dute.



**MERCEDEKO AMA / ESKORIATZA** Egoitzak bi formularekin sortu ziren: batzuk udal egitasmoak dira; beste batzuk –Oñatikoa eta Eskoriatzakoa kasu– fundazio edo erakunde pribatuek sortutakoak dira, baina udalekin eta Gipuzkoako Diputazioarekin lankidetzan kudeatzen dituzte, eta udalak ordezkatuta daude batzordeetan.

TARIFAK

## Bere diru sarreraren %85 ordainduko du bakoitzak

**Egoitzetan sartzeko, udalean eskaera orri bat bete behar da. Gero, Diputazioak pertsonaren osasun, autonomia eta diru egoeraren balorazioa egin, eta tarifa bat ezartzen dio. Erabiltzaileak bere diru sarreraren %85 ordaindu behar du, eta plazaren prezioa ordaintzeko falta dena Aldundiak ipiniko du, ezinduen kasuan, eta Udalak, autonomoenean. Debagoieneko egoitzetako arduradunek zera dioskute: "Oso gutxi dira tarifa osoa eurek ordaindu behar izaten duten bizilagunak".**

ETXEKO LAGUNTZAILEAK

## Sukalde lanak, erosketa, garbiketa...

**Populazioaren bizi-itxaropena luzatzen joan den neurrian, nagusien beharrak asetzeko baliabide eta zerbitzu berriak joan dira agertzen. Horren adibide dira udalek eta enpresa pribatuek –gurean ere badaude– eskaintzen duten etxerako laguntza: sukalde lanak, garbiketa, erosketak… egiten dituzte laguntzaile horiek, batik bat. Kasu batzuetan, nagusia gaixo dagoenean –adibidez, alzheimerra duenean–, familiarendako laguntza ere eskaintzen dute.**

ETXEBIZITZAK

## Euren kabuz baliatzeko gauza direnendako aukera

**Edadetu asko euren kabuz bakarrik bizi izateko gauza dira, eta ez dute egoitzara joan nahi izaten, baina une puntualetan laguntza behar izaten dute. Horiendako pentsatuta daude etxebizitza zainduak. Arrasaten bi daude; eta Oñatin eta Elgetan aurten zabalduko dituzte gehiago. Etxebizitzotan pertsona nagusiok bakarka edo lagun batekin bizi izateko aukera dute, euren kabuz, baina etxea, arropak… garbitzeko pertsona bat joaten zaie. Hainbat aukerako zerbitzuak dituzte.**

EGUNEKO ZENTROAK

## Egunean barrena, aisialdi ariketak egiteko modua

**Eguneko zentroak ere badaude Debagoienean. Autonomia osoaren eta egoitzan izatearen arteko tarteko maila da. Arrasaten, Oñatin eta Bergaran daude Debagoieneko eguneko zentroak. Egunero nagusion bila pasatzen da autobusa, eta eguneko zentroan hainbat aisialdi ekintzatan hartzen dute parte. Arratsaldean etxera bueltatzen dira. Ondo hartu dituzte debagoiendarrok zentro horiek; izan ere, erabiltzaile askok diote "eskolara joatea" bezala dela.**

TELE-ALARMA

## Bakarrik bizi baina guztiz autonomo ez direnendako

**Pertsona nagusi asko, guztiz autonomo ez izan arren, bakarrik bizi dira gaur egun. Horiek tele-alarma zerbitzuaz baliatzeko aukera dute. Argibide gehiago udaleko gizarte laguntzailearenean lor daitezke. Zerbitzu horren bidez, nagusiak soinean darama bat-batean sakatu ahal izateko dispositibo bat. Horrek larrialdi zerbitzuetara alarma deia bidaltzen du. Oso tresna baliagarria da, adibidez, pertsona erori egiten bada eta telefonora iritsi ezin ez bada.**



ENEKO AZKARATE
Astean barrena hainbat manifestazio egin dituzte metalgintzako langileek. Argazkian, joan den egubakoitzean Bergaran egindakoa.

# Metal arloko grebak %87ko erantzuna izan du Debagoieneko enpresetan

*Lan eskubideak aldarrikatzeko manifestazio jendetsuak egin dituzte*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**ELA eta LAB sindikatuen deiari erantzunez, metal arloko langileek lanuzteak egin dituzte hainbat egunean. Erantzun zabala izan dute greba deialdiek eta manifestazioetan ere langile askok hartu du parte. Sindikatuetako ordezkariek arrakastatsutzat jo dute greba.**

Metal arloko lan hitzarmenaren gaineko adostasunik ez dute egin sindikatuek eta enpresaburuen elkarteak. Hala, ELAk eta LABek deituta lanuzteak egin dituzte.

Joan den egubakoitzean, apirilaren 4an, ibarreko metal arloko enpresa askok jarduna eten eta hainbat langilek Bergaran egindako manifestazio jendetsuan hartu zuten parte. Greba deitu zuten sindikatuetako bozeramaileen esanetan, parte-hartzea %87koa izan zen. Adegi enpresaburuen elkarteak ere berretsi egin du lanuzteak erantzun zabala izan zuela, baina eurek emandako datua %70ekoa da.

Atzo, eguena, eta gaur lanuzteak izan dira Debarroan, eta emaitzei dagokienez, erantzuna antzekoa izan da, %85 ingurukoa.

Metal arloko Debarroko langileak euren lan eskubideen aldeko aldarrikapena egiteko manifestazioak egin dituzte bi egunean, Arrasaten eta Eibarren, hurrenez hurren.

ELAko Unai Martínezek zera esan digu: "Greba arrakastatsua izan da, batez ere, Debagoienean, eta borrokan jarraituko dugu, eskatutakoa lortu artean".

# Euskal Herriak Euskal Unibertsitatea taldearen aldarrikapen eguna bihar Oñatin

EDU MENDIBIL

Euskal Herriak Euskal Unibertsitatea taldeak deituta, unibertsitate propioa aldarrikatzeko eguna ospatuko da, bihar, zapatua, Oñatin. Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira, Oñatiko Institutuko aretoan. Manifestazioaren ostean eta bazkal aurretik, 12:00etan, eta *triki-poteoa* egingo dute, trikitilariekin eta bertsolariekin lagunduta. Jarraian, 200 bat lagun batuko dira Plazako frontoian egingo den bazkarian. Horren ondoren, suzko malabaristen eta txalapartarien saioa egongo da gaztelekuan, eta, azkenik, eguna amaitzeko, Fly Shit musika taldeak kontzertua eskainiko du gaztelekuan, 22:00etan.

# Hiri hondakinak kudeatzeko 150 milioi inbertituko dituzte

*Diputazioak 2002-2016 Plana aurkeztu du*

EDU MENDIBIL

**Diputazioko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak hiri hondakinak kudeatzeko 2002-2016 bitarteko Plan Orokorra aurkeztu du. Hondakinen kudeaketa eramangarria ezartzeko behar diren azpiegiturak eta ekintzetara 150 milioi euro inguru bideratuko dituzte.**

Plan Orokorrak, besteak beste, gaur egungo birziklapen zifrak bikoiztea (%20tik %40ra) dauka helburu, sailkako bilketa indartuz eta enpresa, denda eta erakundeetan sor daitezkeen etxekoen antzeko hondakinak birziklatuz. Era berean, konpostatutako materialaren kopurua handitzea (1.500 tonatik 22.500 tonara) lortu nahi dute, merkatuetan, merkataritzagune handietan edo jantokietan sortzen den materia organikoa aprobetxatuz eta eremu txikiagoetan hondakinen aukeratze-bilketa bultzatuz. Era berean, zero isurpen maila lortzea da beste helburuetako bat; hau da, aurrez tratamendua egokirik jaso ez duten hondakinak ez dituzte zabortegietan lagako.

Plana abian jarri bezain laster, gai organikoa tratatzeko konpostatze plantak, energia berreskuratzeko hondakinen errausketa plantak, transferentziaguneak eta garbitzeguneak jarriko dituzte. Planak, esan bezala, 150 milioi euro inguruko aurrekontua dauka, eta kopuru horretan ez dira jasotzen gaur egungo zabortegiak eta azpiegiturak ixteko eta zaintzeko beharrezkoak izango diren gastuak.

Herritarrei Planaren berri emateko kanpainari ekingo dio Diputazioak. Hondakinen tratamendu egokiak dakartzan abantailak azpimarratzea da helburua eta esku orriak eta CD-ROMak eskuragarri izango dira.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Urbanismo

Beasain-Zumarraga (Goierri), Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta), Arrasate-Bergara (Debagoiena) eta Eibar (Debabarrena) Jardute Eremuetako Lurraldearen Zatiko Planak.

Beasain-Zumarraga (Goierri), Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta), Arrasate-Bergara (Debagoiena) eta Eibar (Debabarrena) Jardute Eremuetako Lurraldearen Zatiko Planak jendaurrean erakusteko epea luzatzea erabaki da Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2003ko martxoaren 25ean hartutako Erabakiaz eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko sailburuak egun berean emandako Aginduaz. Plan horiek elkarlanean egin zituzten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, eta hasteko onartu ziren Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2003ko urtarrilaren 14ko Erabakiaz eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko sailburuak data berean emandako Aginduaz.

Planak jendaurrean erakusteko epea luzatzeko Erabakiaren eta Aginduaren iragarkiak argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2003ko apirilaren 4ko 65. zenbakian, eta Euskal Herriko Argitaritzaren Aldizkarian, 2003ko apirilaren 7ko 69. zenbakian. Tramite hori 2003ko apirilaren 30ean bukatuko da eta epe horren barruan nahi duten persona eta erakunde guztiek aipatu dokumentuei buruz egoki deritzeten alegazioak egin ditzakete.

Aipatutako alegazioak, ondoren zehazten diren erakundeen bulegoetan aurkez daitezke: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila (Gasteiz) edo Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren Gipuzkoako Lurralde Bulegoa (Donostia), Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentua (Donostia) eta Jardute Eremuei dagozkien udalerrietako udalak.

Donostia, 2003ko apirilak 7.




M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

Hemen
GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

## DEBAGOIENEAN LABUR

### MCCk ia 4.900 lanpostu sortu zituen iaz, eta urte hasierako aurreikuspenak bete zituen

Mondragon Kooperatiba Korporazioak ia 4.900 lanpostu sortu zituen iaz. Une honetan, ia 67.000 langilek dihardute MCCrendako lanean. Ehunekotan, iaz %8ko igoera izan zuen MCCk, betiere, lanpostuei dagokienez, eta nahiz eta beste urte batzuetan kopuru hobeak lortu diren, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta korporazioko arduradunek oso balorazio ona egin dute. /E.A.

### Urteroko otoitzaldi edo erromesaldia egingo dute bihar, zapatua, Oñatitik Arantzazura

Zapatuan urteroko otoitzaldia edo erromesaldia egingo dute Arantzazura. Oñatitik Arantzazura bitartean bederatzi kilometro egingo dituzte erromesek. Erramu bezperan antolatu ohi da ekintza hori urtero, eta bi helburu ditu: Garizumari bukaera eman eta bakearen alde otoitz egin. 09:30ean abiatuko da otoitzaldia eta 12:00etan iritsiko da Arantzazura. 8.000 bat lagun espero dituzte. /E.A.

### Ibarreko hainbat lagunek bakearen aldeko erromesaldia antolatu dute Fatimara

Fatimara erromesaldia antolatu dute. Maiatzaren 20an irten eta 24an itzuliko dira. Fatiman, besteak beste, eukaristiaren ospakizunean, arrosario santuan eta gurutze-bidean hartuko dute parte. Interesa duenak 943 78 09 51 telefonora dei dezake. Bidaia, egonaldia eta janaria 242 euro kostatzen da. /E.A.




### Euskal Herriko Itzulian ere, 'Egunkaria'-rekin

Astelehenean pasatu zen Debagoienetik Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia, eta *Egunkaria*-ren aldeko ekimenak nabarmendu ziren. Tropela Bergaratik pasatu zenean, esaterako, *Egunkaria*-ren aldeko pankarta eta kartelekin egin zieten ongietorria txirrindulariei Ipintza Institutuko hainbat ikaslek. Bestalde, desobedientzia zibila lantzen duten Euskal Herriko lau taldek *Egunkaria*-ren afera dela-eta autoinkulpazio kanpaina bultzatzen ari dira orain dela aste batzuetatik. Kanpaina horrekin auziperatuei elkartasuna adierazi nahi diete taldeok, eta herritarrei inplikatzeko aukera eman. Autoinkulpazioak bihar, zapatua, utziko dituzte Bergarako epaitegian. /E.A.

## HAUTESKUNDEEN USAINEAN


Mertxe Mondragon, EAJ-EA, Aramaioko Udalerako.


Xabier Sarasua, Aralar, Aretxabaletako Udalerako.


Mireia Unamuno, AuB, Gipuzkoako Batzarretarako.


Iñaki Galdos, EAJ-EA, Gipuzkoako Batzarretarako.


Iñaki Nafarrate, EAJ-EA, Arabako Batzarretarako.


Jose Angel Zabalo, EAJ-EA, Antzuolako Udalerako.


Andres Díez, EB, Bergarako Udalerako.


Juan Carlos Bengoa, EA-EAJ, Eskoriatzako Udalerako.

# EAJ-EAk eta Ezker Batuak bakarrik aukeratu dituzte alkategai guztiak

*Herriz herriko plataformen sinadura batzea bide onetik doa*

ENEKO AZKARATE

**Apirilaren 26an amaitzen da hautagaien zerrendak aurkezteko epea. Oraindik aste bi geratzen zaie, beraz, indar politiko eta hautesleen plataformei zerrendak osatzeko. Hala ere, batzuk, eginak dituzte dagoeneko.**

EAJ-EA koalizioa da hauteskundeetarako zerrendak osatuen dituena. Edo, behinik behin, zerrendak argitara ematen goiztiarrena. Dagoeneko ezagutzen ditugu ibarrean EAJk eta EAk aurkeztuko dituen alkategai guztien izenak: Arrasaten, Inazio Lakuntza; Bergaran, Victoriano Gallastegi; Oñatin, Andoni Gartzia; Aretxabaletan, Arritxu Oliden; Eskoriatzan, Juan Carlos Bengoa (EA); Antzuolan, Jose Angel Zabalo; Aramaion, Mertxe Mondragon; eta Elgetan, Patxi Basauri. Leintz Gatzagan ez du zerrendarik aurkeztuko. Han, orain arte bezala, zerrenda independentea aurkeztuko dute, seguruen, gatzagarrek.

#### BATZARRETARA HAINBAT DEBAGOIENDAR

Iñaki Galdos Oñatiko zinegotzia eta EAko Gipuzkoako presidentea izango da EAJ-EAko zerrendaburua Urola-Deba barrutitik, eta, Mireia Unamuno Antzuolako alkatea (Sozialista Abertzaleak), Autodeterminaziorako Bilgunea (AuB) hautesleen plataformaren izenean. Zerrenda horretan, Joxean Alustiza ere badoa. Arabako Batzar Nagusietara, bestalde, Iñaki Nafarrate Aramaioko alkatea doa. Alkatetza utziko du Batzarretara joateko. Tierras Esparsas —Gasteiz eta Aiala eskualdeak izan ezik, gainerako herriak batzen dituena— barrutian EAJ-EAk aurkeztuko duen zerrendako burua izango da Iñaki Nafarrate.

#### ARALAR, LAU HERRITAN

Aralarrek oraingo astean erabaki du Debagoieneko lau herritan aurkeztea. Jakinekoa zen Arrasaten, Aretxabaletan eta Elgetan zerrendak aurkeztuko zituela. Eta oraingo astean jakin dugu Bergaran ere aurkeztuko duela. Dagoeneko erabakita dauka Aretxabaletan Xabier Sarasua izango dela zerrendako lehena. Beste herrietan oraindik ez dute erabaki. Edozelan ere, ondorengo egunotan emango dituzte ezagutzera gainerako hiru herri horietako alkategaien izenak.

#### SINADURA BATZEA, BIDE ONETIK

Bai Autodeterminaziorako Bilguneak, bai eta herriz herrikako hautesleen plataformak hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko behar dituzten sinadura batzea bide onetik doa. Hainbat herritan, esaterako, dagoeneko gainditu dute beharrezko zuten sinadura kopurua. Edozein modutan ere, oraindik zabalik dago sinatzeko epea. Udaletxeetan eta notaritzan sinatu daiteke.

AuBk eta beste hainbat gizarte eragilek, indar politikok eta sindikatuk eguaztenerako deitu zuten sentsibilizazio egunak, bestalde, jarraipen zabala izan zuen. Hautesleen plataformen alde sinadurak batzeko deiari erantzunez, hiritar ugari hurbildu zen Hego Euskal Herriko lau hiriburuetara.




Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

OÑATI

## Liburuaren hilabetea ospatzen dihardute herriko liburutegian

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna dela-eta, ipuinen eta ipuinlarien gaineko *Ipuinez ipuin* erakusketa jarri dute oraingo astean Udal Liburutegian, eta hilabete bukaerara arte egongo da ikusgai. Aste Santuko jaiegunetan, jakina, itxita egongo da.

Hamazazpi paneletan, munduko eta Euskal Herriko hainbat idazleren bizitza eta lanen gaineko informazioa jaso dute erakusketan. Besteak beste, Perrault, Andersen, Barandiaran, Arratibel, Ariztia eta Grimm anaien lanak batu dituzte. /A.I.

ANTZUOLA

## Igerilekuak Sagastin egiteko hainbat oztopo topatu ditu Udalak

Igerilekuak egiteko aurreproiektua dagoeneko idatzita dago. Bazirudien orain arte asmo hutsa izan dena aurrera zihoala, baina aurreko astean bertan, Diputazioak esan zion Udalari ezin daitekeela igerilekurik egin Sagastin.

Sagastiko zelaia errepidearen ondoan dagoenez, Diputazioko Errepide Departamentuari baimena eskatu zion Udalak, errepidetik zein distantziara eraiki behar den zehatz zezan; erantzuna izan da han igerilekurik ezin dela egin, bestelako inolako azalpen barik. /A.I.

ELGETA

## Elgetarrek 'Idatziak' liburua eskura dezakete, debalde, udaletxean

Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek kaleratu duten *Idatziak* liburua doan eskura daitekeela jakinarazi du Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria batzordeak. Gonbidapenak, agurrak, gutunak, dolumin idatziak, udalerakoak… euskaraz egiteko ereduak agertzen dira era praktikoan. Idatzien adibideak daude liburuan, nork bere beharren arabera moldatzeko. Hala, argitalpena jaso nahi duenak udaletxean eskatu besterik ez du./I.A.



UBANE MADERA

ARRASATE

## Herriko punta batetik bestera joateko oinezkoendako pasealekua Erguin auzoraino iritsi da; oraingo astean inauguratu dute azkeneko zatia

Monterron parketik Erguin auzorainoko Gernika Oinezkoen Zumardiaren zatia inauguratu dute oraingo astean. Azkeneko zati horrekin, guztira 2.600 metro ditu Arrasateko bi puntak (Musakola eta Erguin) lotzen dituen oinezkoendako pasealekuak. Gainera, aurrera begira bidea luzatu eta Garaia Berrikuntza Gunean zehar Garagartza auzoraino iristea gura du Udalak. Hori guztiori, oinezkoak herrian barrena lasai ibil daitezen eta, bide batez, zenbaitek automobila gutxiago erabiltzea lortzen badute, hobeto.

Zati berriak, oraingo astean inauguratu dutenak, zubi ikusgarria dauka bukaera aldean. Ez dago lurrerainoko zutabeekin eutsita, alboetan eraikitako bestelako euskarriekin baizik. Gipuzkoan bakarrenetarikoa da. /U.M.

ARAMAIO

# Aste bukaeran ez da aspertzeko astirik egongo Aramaio aldean

Gaur hasi eta domekara arte Aramaiotik bertatik irten barik gauza mordoa egiteko aukera egongo da.

**BARIKUA**

Batetik, gaur hasiko dira Jose Mari Azkarraga *Lurgorri*-ren omenezko ekitaldiak. Haren loba Josemari Velez de Mendizabalek *Lurgorri*-ren gainean egingo du berba.

Bestalde, 21:15ean, pilotalekuan Elgetako Lau t'erdiko Txapelketaren barruko hiru partidu jokatuko dituzte.

**ZAPATUA**

Zapatuan, 11:00etan *Lurgorri*-en omenaldiko ekitaldiekin segituko dute, kultura etxean; adibidez, 12:00etan Aramaioko pasealeku bati *Lurgorri* izena emango diote; eta gero Sastiñan erakusketa zabalduko dute.

Bestalde, Arbel Eguna ere bada zapatuan: Arbel Baserritar Elkartearen kontuen berri izateko eguna. Eta, goizeko ekitaldiez gain, arratsaldean Urrezko Aizkorarako kanporaketa jokatuko dute Aramaion, 17:15ean; eta 22:00etan, eskuz binakako pilota partiduak izango dira, pilotalekuan. Aurretik herriko pilotariek jokatuko dute.

**DOMEKA**

Eta domekan, goizean, Paleta Txapelketako finala eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatuko dituzte, 09:00etan hasita.

Eta iluntzean, 19:00etan, euskal kantuak entzuteko aukera izango da Anboto tabernan. /U.M.

**Zertzelada**

***Lurgorri*-ri omenaldia, Arbel Eguna, pilota partiduak, aizkolariak eta kontzertua izango dira Aramaion oraingo asteburuan**

BERGARA

# Erramu-zapatuko feria izango da bihar, animalia eta postu ugarirekin

Goizean goiz irekiko dute feria; 09:30ean, hain justu, eta zer ikusi eta erosi ugari egongo da. Ibargarai kalean ganadua eta ardiak egongo dira ikusgai; ehun buru inguru. 13:00etan bigantxen enkantea egingo dute. Seminarioko patioan, berriz, bestelako animaliak, makineria eta txakurleren gaineko erakusketa egongo dira. Baita eusko labeleko produktuen postu ugari ere; eta eusko labelekoak ez izan arren, Fraiskozurin, Simon Arrietan eta Irala kalean janari postu gehiago egongo dira.

Bestalde, 60 artisau inguru egongo dira San Martin eta Munibe plazetan, eta Azpillaga eta Agirre bertsolariak, Seminarioan. /M.B.



ARTXIBOA

**San Martin plazan eta Munibe plazan egongo dira artisauak.**

ARETXABALETA

## Areantzako bidea konpontzen hasi da, azkenean ere, Foru Aldundia

Astelehenean hasi ziren Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatutako langileak Areantza auzorako bidea konpontzen. Bidearen egoera aztertu ondoren kare-esnezko geruza bat botatzen ibili dira astean. Lanak apirilaren 16rako amaituko dituzte.

Foru Aldundiak eta Aretxabaletako Udalak aspaldi sinatu zuten Larrinoko bidea eta Areantzako bidea konpontzeko hitzarmena. Akordio horren arabera, bide horiek biak konpondu ondoren Larrinoko bidearen ardura herriko Udalak hartuko du. /A.L.

ESKORIATZA

## Dantzari Eguna ospatuko dute domekan eskoriatzarrek

Dantzari Eguna ospatuko dute eskoriatzarrek domeka honetan. Inguruko herrietako ume eta gaztetxo ugari batuko dira Eskoriatzako kaleetan, eta ikuskizun polita eskainiko diete herritarrei.

Txistularien dianak emango dio hasiera egunari, eta 10:30etik aurrera herrian batutako taldeek dantza ikuskizunak eskainiko dituzte. 12:30ean dantzarien alardea izango da Gorosarri plazan, eta horren ostean txistulariena. Arratsaldean, ostera, dantzaldia izango dute bertan batutako guztiek. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Turismo Bulegoan egin beharko dira museoa bisitatzeko erreserbak

Orain dela 15 egun inauguratu zituzten Labidendako eta Turismo Bulegoko arduradunak oso pozik daude herritarrek eta kanpoko lagunek egin dieten harrerarekin. Turismo Bulegoari dagokionez, gainera, aste honetan telefonoa jarri dute, eta aurrerantzean Gatz Museoa bisitatu gura dutenek 943 71 47 92 telefonora deitu beharko dute. Dagoeneko bisitari asko dituzte datorren asteotarako. Zapatuetako eta domeketako ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. /A.G.

Juanjo San Migel kazetari arrasatearrak 20 urte beteko ditu aurten Euskadi Irratian lanean. Albistegietan dihardu lanean, nazioarteko gaietan, eta askotan atzerrian ibiltzen da berriemaile. Azken lan bidaia Jordaniara egin du, gerraren berri emateko. Kazetari lanaz eta azken egunotan gerran hil diren kazetariez egin dute berba Arrasate Irratian Kaitin Allendek eta Aitziber Aranburuzabalak Juanjo San Migelekin. Haren berbak hona ekarri ditugu, pilpilean dago-eta gerra-kazetarien gaia.

IRATI AGIRREAZALDEGI



EITB

# *Juanjo San Miguel*

EUSKADI IRRATIKO NAZIOARTEKO BERRIEMALEA

# “Komunikabideok gerra ikuskizun bihurtu dugu, eta irudirik gordinenak ematea da helburua”

KAZETARIAK BAGDADEN

**“Gaur egun Bagdadetik irtetea bertan geratzea baino arriskutsuagoa izan daiteke kazetariendako. Irteteko gestioak egin arren, egoera ez da batere erraza”**

INFORMAZIOAREN MUGA

**“Jende errugabe asko ari da hiltzen gerran, baita umeak ere, eta badirudi horrek ez duela inporta informazioa ematen baldin bada”**

**Arrasaten zaude orain, eta etxetik jaso duzu kazetarien heriotzen berri. Zer sentitu duzu?**

Gerrako albisteek eta gerran hainbeste kazetari hil izanak kezka eragin dit. Gaitza da jakitea zergatik gertatzen den hainbeste heriotza. Hala ere, kontuan hartu behar da heriotzak, batez ere, irakiarren artean gertatzen ari direla. Kazetariak, berriz, neurri baten, behintzat, euren borondatez daude han.

**Azalpenik eman daiteke heriotza horiek arrazoitzeko?**

Komunikabideok gerra ikuskizun bihurtu dugu, eta helburu nagusia ahalik eta irudirik gordinenak, gogorrenak eta bortitzenak ematea da. Horrek esan gura du kazetariak bere burua arriskuan jarri behar duela. Gerra hau zabalduena dela diote, inoiz baino albiste gehiago jasotzen ari garela, baina kazetariak han egoteak ez du esan nahi gerraz gehiago dakigunik.

**Non dago informatzeko muga?**

Iraken bertan eta inguruko herrietan inoiz baino kazetari gehiago dago. 500 inguru dira soldadu estatubatuar eta britainiarrekin daudenak. Bagdad hiriburuan gerra hasi aurretik sartutakoak 80, eta inguruko herrietan 1.200 kazetari ei daude. Horren helburua gerraren gainean ahalik eta informaziorik zabalena eta garbiena ematea da, baina helburuak ez dira betetzen. Soldaduekin dauden kazetariek, esaterako, zein informazio duten eta benetako informazioa emateko zenbaterainoko askatasuna duten zalantzan jartzeko moduko kontua da. Gainera, gerra honetan informazioa propaganda gisa erabiltzen ari dira bai batzuk bai besteak. Hortaz, non geratzen da kazetarien irudia?

**T5eko albistegietako zuzendariak esan du heriotza hauek ez dutela merezi. Iritzi berekoa zara?**

Bai, kazetaritzan neurriak ondo jarri behar dira. Neurri horiek komunikabideek eta ikus-entzuleek jartzen dituzte. Gaur egun, komunikabideak, batez ere telebista, ikuskizun bihurtu dira. Ikuskizun horretan berdin zaie zer eta zelan eman, sentimenduak astintzea dute-eta helburu. Horretarako ikusi besterik ez dago zein irudi eta musika erabiltzen dituzten.

**Informazioaren izenean edozein gauza eman daiteke telebistaz?**

Gauza ikaragarri baten aurrean gaude. Jende errugabe asko ari da hiltzen, baita umeak ere, eta badirudi horrek ez duela inporta informazioa ematen bada. Tankeak, abioiak, arma inteligenteak... azaltzea da kontua. Bonbardaketak, zaurituak erietxeetan... ikusten ditugu, baina bonbak zeinek bota dituen, zein eragin izan duten... Gerra zelan doan ez dakigu.

**Komunikabideek diotenaren arabera, Bagdad kontrolpean dute.**

Kazetariek, oro har, komunikabideek han zabaltzen dutena aipatzen dute, gutxi gorabehera. Nire iritziz, gerra hau estatubatuarrek eta britainiarrek irabaziko dute, teknologian, armetan eta gerra arloan indartsuagoak direlako. Baina gauza bat da gerra irabaztea eta beste bat egoera kontrolpean izatea. Eta ikusteko dago zer gertatuko den Iraken gero.

**Bagdad mendean dutela esan dute. Komunikabideak ere kontrolpean dituzte?**

Irakeko telebistak arazo handiak ditu. Argindarrik ere ez dute Bagdaden bertan, eta telebista eraso-helburu izan da. Irakeko telebista ez ezik, Al-Jazeera eta Dubai telebistak ere bonbardatu dituzte. Komunikabideen lana gaitza eta gogorra da. Bestalde, soldadu estatubatuarren eta britainiarren artean dauden kazetariek paper bat sinatu behar izan dute esango dutena eta esan ezin dutena zehaztuta. Esaterako, zin egin dute ez dutela sekula non dauden adieraziko. Baina gerra aurretik Bagdaden sartu ziren kazetariekin ez dira fio. Ni gerra hasi baino lehen egon nintzen Bagdaden, eta orduan, bertako Informazio Ministerioko ordezkariak gurekin etortzen ziren leku guztietara. Bi aldeek asko mugatu dituzte zabaldutako informazioa eta kazetarion mugimenduak. Hortaz, jasotzen ari garen informazioa kontuz hartu behar da.

**Informazioa jasotzea gaitza da. Zabaltzeko ere zailtasunak daude?**

Aurrerapen teknikoak handiak dira, eta satelite bidezko telefonoek horretarako aukera ematen dute. Edozein lekutatik, telebista edo irrati baten sartzea eta kronika bat egunkari batera bidaltzea errazten dute baliabide teknologikoek. Baina kazetariak albiste iturriak behar ditu, eta arazoak sortzen dira informazioa eskuratzeko. Bagdaden dauden kazetariek, esaterako, Informazio Ministerioak jarritako autobusetan buelta bat eman dute egunero gertatzen denaz jabetzeko, baina ministeriokoek nahi duten lekura eramaten dituzte. Gainera, euren baimen barik ezin dira mugitu, eta esanak bete ezean, komisaldegira eramaten dituzte.

**Espainiako hainbat kazetarik Bagdadetik irteteko eskaria egin dute. Ez da beranduegi izango?**

Berandu den ez dakit. Baina gaur egun Bagdadetik irtetea bertan geratzea baino arriskutsuagoa izan liteke. Gestioak egingo dituzten arren, egoera ez da batere erraza. Gainera, kazetarien artean kezka nabarmena da, are gehiago inguruan lankideak hiltzen ari direla ikusita. Espainiako kazetari bat eta kameralari bat hil dituzte, bata estatubatuarrek eta bestea irakiarrek; hortaz, kazetariak erdian salduta daude.

**Buruzagi aliatuen esanetan, kazetariek bazekiten han ezin zirela egon. Hortaz, kazetariak bere burua arriskuan bere kabuz jartzen du?**

Kazetariak euren borondatez joan dira Bagdadera. Egoera asko okertu da, eta kazetariak arrisku larrian daude. Gobernuek eta erakundeek kazetariak handik ateratzeko borondatea erakutsi arren, han gerran daude, eta guztien helburua gerra irabaztea denez, kazetarien segurtasuna bigarren mailan dago.

**Badakizu zer gertatuko den Euskal Herriko kazetariekin?**

Iker Altuna Jordanian dago eta hango egoera lasaiagoa da, ez dago arriskurik. ETBko hiru lagun, aldiz, Bagdaden daude eta asmoa handik ateratzea bada ere, beste kazetariek zer eta zelan egin zain daude.

**Mugarik Gabeko Kazetarien Elkarteak dio AEBek kazetariak helburutzat dituztela. Iritzi berekoa zara?**

Kazetariak ikusi eta bertan garbitzen dituztenik ez nuke esango. Baina estatubatuarrendako eta britainiarrendako, Bagdaden dauden kazetariak traba izan daitezke, gerrako irudi batzuk zabaltzea ez zaie-eta komeni. Hortaz, kazetariak beldurtzea horretarako bide bat da.

**Epe laburrean, berriro atzerrira joango zara lanera?**

Oraingoz, ez. Azken bi hilabete eta erdian bi aldiz irten naiz: Bagdaden izan nintzen gerra aurretik eta Jordanian gero. Hala ere, gauzak leku guztietan asko aldatzen ari dira denbora laburrean eta ezin da ezer zehatz jakin. Baliteke berriro irten beharra izatea.

# Zabalik



PELLO ZABALA

## Harri gordina

**Aurten beteko dira 50 urte, Oteitza Arantzazun, harri enbor handi etzanak, *tiriki tauki-tauki* mailu-zizelen hotsez lantzen ezagutu nuenetik. Dozenerdi bat aldiz, Arantzazuko jatetxean otordua elkarren inguruan suertatu zitzaidan: gogoan dut berak, mutiko lotsati isila nintzenari postrea bidaltzen ziola. Ez nenkien orduan eskertzen ere. Ezaupide axalekoa, gaxtea noski.**

**Oteitzaren mamina gerora ezagutu nuenaren parean, ezer gutxi orduko ezagutza. Baina bizipen gazteak aise botatzen du zuztarrik. Orduko eskerron-eza aspaldi kitatua diot, bere lanari diodan estimuz. Lan hauxe baitut beragandik gelditu zaidan betiko postre gozoa.**

**Oteitzaren mamina, harri landu gotorrean, biziki estimatzen dut, bai, egunero miretsi eta sarri laztantzen dut bi begien fereka maitetsuz. Laztanka noakio goizero, argixintaren itzalean harrizko uhinen marea grixean argitzalak nabari gosez. Maite ditut harriok, lanbro lapatxak beztuz bustitzen dituenean. Irribarre ttikiz gozatzen naiz, elur lapatxa hasi orduko: han izaten naiz, zer ikusteko eta, Oteitzaren harrizko mamia elurrak nola beztitzen duen, burutik hasita, kopeta eta bekaina xurituz. Mozorro maitakor eta laztana da elurrak ezartzen diena...**

**Nire begiok askotan eta sarri josten ditut euskal horma handi gotorrean. Ferekaz laztantzen dut hor goiko seme etzanaren tragedia latza: lepoa barrendu zaio aurpegi bihurritu hilotzean, Amaren oinetan gorpu. Eta Ama Maria, goienkako hegadaz, buru begi ta lepo goruntztua dakusgunari? Bihotz barrendik bihotz damaiot seme erailaren ama laztanari: bi besoen hegoak, ahiturik beheratuta, atzendu zaizkio ezinaren ahuldade hustuan. Geure terrajez oretutako harria baita Oteitzak bere amets ongi pentsatu horietan burutu ta gorpuztu duena. Euskaldun ama askoren alde jasotzen diot animo-otoitza, Oteitzaren mamin harri gordinari, herri bigun gurearen izenean...**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Faxa

## Fagor Ederlan, ISO 14001

Duela egun batzuk berri hau kaleratu zuten prentsan: Iruñeko Entzutegi Nazionaleko fiskalak 4 urte eta erdiko kartzela-zigorra, 5.000 euroko isuna eta 4 urtez metalurgiaren alorrean lan egitea debekatzea eskatu du Tafallako Fagor-Luzuriagako bi zuzendarirentzat, ustez ekologiaren kontrako delitua egiteagatik.

Salaketaren arabera, hondakin toxikoak, disolbatzaileak, erretxinak, petrolioa, olioa, koipeak edo artsenikoa isurtzen zituzten lokatzetara eta aire librean dekantatzen ziren Cidagos ibaiaren ibilgutik 200 metro eskasera. Lur-azpia eta urak kutsatu ondoren, eskualdeko zabortegian uzten zituzten hondakin geldoak balira bezala.

Guk ez diogu errugabetasun-printzipioari muzin egingo, baina kontuan hartuta administrazioek produkzio-prozesuei trabak jartzeko joera handirik ez dutela eta berariaz ekologiaren kontrako delitutzat hartutako jokabideen kontrako epaiak urriak direla, zerbait egingo zutela uste dugu.

Akusatuek ondorengo arrazoia eman zuten errugabeak direla adierazteko: “Fagor-Luzuriagaren iingurumen-kudeaketa bikaina kreditatuta dago”.

Tafallako teknikariek euren buruaren alde egindako defentsak Fagor Ederlanek kutsadura-salaketen aurrean jarri ohi dituen aitzakiak dakarzkigu gogora. Izan ere, berdin erantzun zuen Aramaio eta Deba ibaiak kutsatu izana leporatu ziotenean edota Lasa enpresaren eta partikularrek azken salaketetan, lur mugakideetan edo inguruan aparkatutako autoetan hain nabarmena den hauts metalikoa dela eta.

Horrelako gorabeherak etengabeak izan arren, Fagor Ederlanek legea betetzen duela eta ingurumenaren alorreko homologazioa (ISO 14001) duela dio.

Ingurumena kudeatzeko sistema egiaztatzen duen ISO 14001 agiria eskuratzeko aukera borondatezkoa da eta lortu nahi duten enpresek, ustez, produkzio-prozesuak hobetzeko asmoa izaten dute. Baina hori ez da horrela izaten. Aitzitik, agiri hori salmentak handitzeko marketing bikaina da gehienbat, eta oraingoz behintzat administrazioak ez du derrigorrezko neurririk hartu arauak hausten dituztenen kontra. Izan ere, espainiar estatuak Europako araudiari ez dio sarbiderik eman egungo legegintzan, eta beraz, gai horretan ez dago zertan ezer egin.

Fagor Ederlanek ingurumenean izan duen eragina oso negatiboa iruditzen zaigu, eta ildo horretan ondorengoak nabarmendu nahi ditugu:

- Inpaktu handiko aire-kutsadura eragiten du etengabe eta une jakin batzuetan oso maila larrietara ere heltzen da (eskualdeko biztanleek horren kontrako salaketa publikoa egin dute hainbat aldiz).
- Soinu-kutsadura handia eragiten du. Osakidetzak egindako ikerketa batean eskualdeko egoera kritikotzat jo zuten.
- Aramaio ibaitik ur asko hartzen dute eta horrek oso eragin negatiboa du udaldian.
- Ondorio larriak eragiten ditu paisaian.

Gure iritziz, horrek guztiak eragin txarra du bai biztanleen bai ingurunearen osasunean.

Erantzukizunak banatzen hasiz gero, enpresa, erantzule nagusia izan arren, ez da kritika zorrotzak merezi dituen bakarra, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak ere zerikusia baitute gai horretan.

Aipatutakoa zehaztasun handiagoz azaltzeko, Arrasateko Udalak eskatuta burutu den Ingurumen Diagnostikoan egindako iruzkin batzuk aipatuko ditugu: “Arrasateko Udalak datu gutxi eta kontrol txikia dauka industrietako hondakin-uren isurketen gainean. Eta egoera are larriagoa da, Udalaren eta gai horretan eskumena duen administrazioaren artean koordinazio gutxi dagoelako”; “Industri erabilerako urhornikuntza ez da ia kontrolatzen, eta litekeena da etorkizun hurbilean arazoak sortzea”; “Udalak gutxi esku hartzen du eta eskumen nagusiak Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Ur Partzuergoaren erantzukizun dira”; “Udalak ez du ia inolako informaziorik, kontrolik eta esku-hartzerik bere eskumenekoak ez diren industri jardueretan, enpresek eramandako uretan eta sortutako industri hondakinetan”.

Azkenik, Arrasateko Plangintza Nagusia eta bertan Fagor Ederlanendako etorkizunerako diseinatu direnak nahi ditugu aipatu.

Fagor Ederlan A-22 arean dago, hau da, Garaia Proiektuan.

Garaia makro-proiektuaren inguruan sortu den filosofia edo, hobeto esanda, literatura honakoa da:

Garaiak lurraldeko ingurumena biziberritzeko aukera emango du.

Proposatu den PER aztertu ondoren, gure ustez, ingurumena biziberritzeko helburuan kontraesanak eta zehaztugabetasunak dira nagusi.

Epe ertainean trantsizio-aldia finkatzea planteatu da, Fagor Ederlan fundizioa kendu eta ikerlanetarako erabiltzeko. Ildo beretik doa Etapa Plana ere, V. Fasean lantegia botatzeko helburua baitago ezarrita. Epea mugagabea da, ordea.

Planaren Memorian beste helburu bat finkatu da: Fagor Ederlan fundizioa indartzea eta zabaltzea (Etapa Planaren IV. Fasea).

Hori guztia ikusita, argi dago lurraldeko ingurumena biziberritzeko helburua (PERen dago jasota), Fagor Ederlan fundizioa botatzea eskatzen duena, eta lantegi hori indartzeko eta hedatzeko asmoa bateraezinak direla erabat.

Beraz, hauek dira gure aldarrikapenak:

1. Uribarriko fundizioa indartu eta hedatzeko helburua PERtik kentzea.
2. Fundizioa erabiltzen uztea, baina botatzeko unea heldu arte.
3. Fagor Ederlan fundizioa kentzeko epea finkatzea.

Zorionak emango genizkioke Fagor Ederlani ISO 14001 eskuratu izanagatik, baina horretarako lehenbizi agiriak eskatzen dituen baldintzak bete beharko lituzke.

EKOLOGISTAK MARTXAN
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Aralarren deia sinadurak biltzeko

PSOE eta PPren hauteskunde zerrenda eta ezker abertzaleko hauteskunde elkargo zenbaiten aurka hauteskundeetara aurkezteko oinarrizko eskubide demokratikoa ekiditeko dauden mehatxuen aurrean, Aralarrek ondoko hau adierazi nahi du:

1. Hauteskunde zerrenda guztiek eta hauteskunde elkargo guztiek, edozein izaera eta ezaugarriko izanda ere, mehatxurik jaso gabe aurkezteko duten eskubide demokratikoa aldarrikatzen dugu.

2. Salatzen ditugu Espainiako PPren Gobernuaren eta bere fiskalen mehatxuak, ezker abertzaleko hauteskunde elkargoak hala edo nola legez kanpo uztea helburu dutenak.

3. Errefusatzen ditugu PSOE eta PPren hautagaien aurka zuzenduriko mehatxuak.

4. Hiritarrei dei egiten diegu mehatxaturiko eskubide demokratikoarekiko elkartasun aktiboa azal dezaten, komenigarritzat jotzen duten moduan.

5. Zehazkiago, ezker abertzaleko hauteskunde elkargoei dagokienez, eskatzen dugu sinadura bilketan laguntzeko, elkargo horiek eratu eta aurkeztu ahal daitezen.

6. Aurrekoak ez du esan nahi Aralar zerrenda edo elkargo horientzako botoa eskatzen ari denik. Eskatzen ari garena da haiek izateko eta euskal hiritargoak eman nahi dien hauteskunde babesa hartzeko duten eskubidea errespeta dadin.

ARALAR
Debagoiena

## Atxabaltarrei

Gure herriaren egoera larria ikusirik, Aretxa taldekook aurrera egiteko apustua egin dugu. Maiatzeko hauteskundeetan zerrenda aurkeztu behar dugu, baina horretarako, behar-beharrezko dugu herritarron laguntza.

Denok dakigun bezala, espainiar gobernuak udalen ezker abertzaleon presentzia izateko hainbat oztopo jarri dizkigunez, aurkezteko aukera izateko nahitaezkoa da guztion laguntza. Horretarako, abian dagoen sinadura bilketan herritarrek parte hartu dezazuen animatzen zaituztegu.

Sinadura bilketa hau Aretxabaletako udaletxean egingo da, astelehenetik ostiralera bitartean: goizez, 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 14:00etatik 17:00etara. Guztion artean, orain arte lehen indar izan den alternatiba politikoaren presentzia ziurtatu beharko dugu. Aldez aurretik, zuen aletxoa emango duzuen herritar orori eskerrak ematen dizkizuegu. Aurrera autodeterminazioa!

ARETXA TALDEA
Aretxabaleta

## Antzuolan gertu gae

Euskal Herriaren aldeko ideiak legez kanporatzen diren garai honetan inoiz baino premiazkoagoa da ideia horiek guztiak defendatzea. Horien defentsarako, hain zuzen ere, talde zabala sortu da Antzuolan eta, inolako lotsa barik, zera esan nahi dugu:

Antzuolan gertu gae autodeterminazio eskubidea defendatzeko, gertu gae eskubide guztiak errespetatuko diren etorkizun berri bat eraikitzeko, gertu gae ezkerreko ikuspuntutik herritarren bizibaldintzak defendatzeko. Azken baten, gertu gae herriaren alde lan egiteko.

Ildo horretatik, antzuolarron sinboloa den ilargi erdiaren babesean Udalean ere lan egin nahi dugu, eta horretarako dugun eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Horretarako, ordea, herritar guztien sinadura behar dugu. Beraz, ideia guztiak hauteskundeetan izatearen alde bazaude, eta oraindik zure sinadura eman ez baduzu, udaletxera gerturatu eta eman zure atxikimendua. Ilgoran dagoen ilargi erdi hori askatasunaren ilargi betetik gertuago egon dadin lan egiteko gertu gae Antzuolan.

ANTZUOLAKO GERTU GAE HERRI PLATAFORMA
Antzuola

## Publikoa eta hezitzailea

Sare publikoko sektore guztietako ordezkariak biltzen dituen Irakaskuntza Publikoaren Mahaiak kezkagarri baloratzen du Hezkuntza Sailak 0-3 adin tartearí dagokion Eskola Mapa osatzeko, eskaintza publikoari dagokionez, adierazten duen planifikazio eraginkor baten eza.

Mahai honek eginiko proposamenean, sare publikoan 5.700 plaza berri sortzearen beharra aurreikusten zen, 2005. urtea bitartean, gaur egun dagoenetik abiatuta; Hezkuntza Sailak, berriz, 3.000 baino ez dituela sortuko agindu du.

Hazkuntza Sailak plaza hauek sortzeko partzuergoaren formulaz baliatu nahi du bide bakar gisa; Mahai honek beste aukera batzuk ere ahalbidetzeko eskatzen dio eta, bereziki, ikastetxe publikoen ekimenei jaramon egiteko.

Gainera, adin honek haurraren garapenean berebiziko garrantzia daukala onartu eta, ondorioz, ziklo honen izaera hezitzailea aldarrikatzen du Mahaiak, beti ere adinari dagokion arreta berezia zainduz eta familien beharretara egokituko den planteamendu malguekin jokatuz.

Hau guztia adierazten jarraitzeko, oraingo martitzenean, kale bilkurak egin ditugu Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzen aurrean. Debagoieneko ordezkariak ere han izan gara.

IRAKASKUNTZA PUBLIKOAREN MAHAIA (EHIGE, CCOO, ELA, LAB, SEE-EILAS, UGAT, HAUR ESKOLEN KOORDINADORA, SAREAN, BIHE, SORTZEN-IKASBATUAZ)
Debagoiena

## Debagoiendarrok Korrika

Korrika 13 Debagoiena zeharkatuz joan zaigu Iruñarantz eta gure eskualeak egin dion harrera ezin hobea izan da. Ibilbide guztian zehar jende uholde itzelak ikusi ditugu. Herrietan parte hartu duen jendetzak zirrara handia sortu du antolaketa lanetan ibili garen guztion artean. Horregatik, debagoiendar guztiak zoriondu nahi ditugu. Errepideetan aldapa gora eta behera botatako izerdiak euskararen itsasoa elikatu du, debagoiendarrek euskararekin duten konpromisoa beste behin ere berretsiz.

Bestalde, Korrika 13ko antolakuntzan lagundu diguzuen guztiei bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu, Korrika 13k gure eskualdean izan duen arrakastaren meritua guztiona da-eta. Azkenik, oraingo domekan, hilak 13, Korrika 13ko azken kilometroa egitera animatu nahi zaituztegu eta Iruñean egingo den jaialdira joateko gonbitea egiten dizuegu.

Korrika 14an berriz ere errepideetan elkar ikusiko dugulakoan, AEK eta Korrikaren izenean, mila milioi esker debagoeindar guztioi eta jarraitu herri honen eta euskararen geroa lantzen!

DEBAGOIENEKO AEK
Debagoiena

*Hemeroteka*

## Golde aro

Zoruak huts egiten du, jakina. Nazionalismo demokratiko deitutakoaren oinarri soziala eta bere pentsamenduzorua ez da gai euskal herriaren garapenak behar duen energia soziala aktibatzeko, ezintasun estrukturala dauka bere baitan. Oinarrizkoena falta zaio, nahimen eta ekimen endogenoaren nahikotasun maila. Energia soziala aktibatzeko baldintza gehiago du ezker abertzaleak, baina 25 urteotan euskarri izan duen imajinarioak ez du balio: ez darabilen hizkuntza-normalizazioaren paradigmak, ez lurraldetasunari lotutako eskubide-diskurtsoak, ez elementu fosildu gehiegi dituen ezker-diskurtsoak, eta ez, batez ere, bortxa-salaketa-kexa dinamikan sortu duen pedagogia tamalgarriak balio dute gaur egun euskal herria garatzeko oinarri moduan. Eta pentsamenduaren lurzoruak, imajinarioak, balioek eta etorkizun-ikuspegiak huts egiten duenean, ezin hortik epe labur, ertain eta luzeko helburuak kateatzen dituen estrategia bizigarririk eraiki. Eta estrategia sinesgarririk ez dagoenean, ekintza eta jardun meritudunek ere indarra eskas. (...)

JON SARASUA
'Egunero'. 2003-04-10

## Munstro bat bertatik ezagutu nuenekoa

Ikaspilota Ipuin Lehiaketaren lehen edizioa jarri nahi genuen martxan eta baimena eskatzera joan nintzaion Oteizari, Migel Pelay Orozkorekin, eta, etxera iritsi bezain pronto, proiektuari buruzko xehetasun guztiak eskatu zizkidan, eta baita Oporto ardo kopa bana eskaini ere. (...)

Sartu ginen pilotaren inguruko kontuak aipatzera, eta, hizketan hasi ginelarik, nik nire inozotasunean aipatu nion gure aspaldiko ekintza gehienak Kutxaren babesarekin ari ginela antolatzen eta ekintza hori ere aurrezki kutxa horren babesean egingo genuela. Izugarrizko amorrua hartu zuen eta esan zuen: "¿Ya sabéis en manos de quién estáis?, eta batbatean izugarri gustatzen zitzaiola ideia baina berak jarriko zituela baldintzak esan zidan. Bere poltsikotik kartila atera eta behar genuena hartzeko esan zigun, baina ezer ez esatek:o "kabroi horiei".

JOXAN UNSAIN
'GARA'. 2003-04-10

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

## *Alkategai guztiek euskaldunak izan beharko lukete hemen?*

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA** Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA** Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
**ADMINISTRAZIOA** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK** Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
**PUBLIZITATEA** Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA** Iban Arantzabal
**TESTUEN ZUZENKETA** Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA** Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA** Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA** Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Podiuma

# Iban Unanue |FUTBOLARIA|

**Aloña Mendi taldeko aurrelari da Iban Unanue antzuolarra. Hainbat taldetan jokatu du, eta Oñatiko taldean dihardu aurten. Taldea sailkapeneko azken postuetatik ateratzeko ahaleginean Ibanen lanak eta sartutako golek izan dute zerikusirik, eta bere jokoarengatik Debagoieneko martxoko jokalari onena izendatu dute.**

**Esanahi berezirik badu zuretako martxoko Debagoieneko futbolari onena izendatzeak?**

Edozeini gustatzen zaio horrelako sari bat lortzea, baina suerte kontua ere badela uste dut. Azken hilabetean, taldea ondo ibili da eta taldearekin batera ni ere ahal dudan onena ematen ahalegindu naiz.

**Taldea ondo ibili da eta, gainera, jaitsiera postuetatik irtetea lortu duzue, ezta?**

Hala izan da, eta aspaldiko partez lasaitasunez jokatzeko aukera dugu. Denbora luzez atzeko postuetan sartuta egon gara, baina gogor entrenatuz eta lan handia eginaz, zulotik irtetea lortu dugu. Orain bide onetik jarraitu nahi genuke, 15. postutik gertu gaude-eta.

**Zuk sartutako golek izan dute zerikusirik sailkapenean aurrera egiteko?**

Aurrelaria naizen aldetik, nire lana eta ilusioa golak egitea da. Zelaira golen bat egiteko gogoz irteten naiz beti, eta taldeari laguntzen badiot, hobeto. Oraingo denboraldian zazpi gol egin ditut.



I.A.

Iban Unanue aurtengo denboraldian iritsi da Aloña Mendi taldera.

> **"Aloña Mendi taldean oso ondo hartu naute, eta jokalarion artean dagoen lagun giroa ere oso garrantzitsua da futbolerako"**

> **"Aurrelaria naizen aldetik nire lana eta ilusioa golak egitea da. Zelaira golak egiteko gogoz irteten naiz beti"**

**Sailkapen orokorrean, 16. postuan zaudete. Zein tokitan amaituko duzue?**

Mailari eutsi eta sailkapenean gora egitea espero dugu. Jokatutako azken bost partiduetatik hiru irabazi ditugu, eta gure aurretik daudenak ere, puntuei dagokienez, gugandik gertu daude sailkapenean. Gainera, nahiko egutegi ona daukagu hemendik eta denboraldia amaitu bitartean. Falta diren zazpi partiduetako aurkariak zeintzu diren ikusita, partiduak errazagoak izango direla pentsatzen dut, eta denboraldia taularen erdialdean amaitzea da gure taldearen asmoa.

**Futbolean egin duzun ibilbidean talde askotatik pasatutakoa zara. Zein taldetan ibili zara gusturen?**

Aurten, Aloña Mendin nabil jokatzen; iaz, Eibarren ibili nintzen; Bergaran eta Realean ibilitakoa naiz, baita Urolan ere. Aurten oso gustura nabil taldean. Oñatin oso ondo hartu naute, eta jendearekin oso ondo moldatzen naiz. Lagun giro polita daukagu jokalarion artean, eta hori da garrantzitsuena. Horrek futbolean dudan guztia ematera animatzen nau. Realean jokatzeak ere ilusioa egiten du, baina gaitza da aurrera egitea.

**Antzuolarra izanik, ez duzu inoiz pentsatu Antzuolan jokatzerik?**

Polita izango litzateke futbolari ibilbidea Antzuolan bukatzea, baina oraindik 19 urte besterik ez dut eta bide luzea geratzen zait.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Ordizia 1 - Aretxabaleta 0 / Anaitasuna 0 - Bergara 1 / Aloña Mendi 1 - Hondarribia 2 / Mondra 3 - Intxurre 0

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 3 puntu |
| 2. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 2 puntu |
| 3. | Unai Biain | (Aloña Mendi) | 1 puntu |

1

**Gorka San Vicente**
Bergara

2

**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

3

**Unai Biain**
Aloña Mendi

**Gorka San Vicente**
Gorkak gola, eta garaipen garrantzitsua Bergarak.

**Jon Muruamendiaraz**
Mondrako *pitxitxiak* oraingoan gol bi sartu zituen.

**Unai Biain**
Aloñak ezin hirugarren partidua jarraian irabazi.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 15 puntu |
| 2. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 15 puntu |
| 3. | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |
| 4. | Eric García | (Aretxabaleta) | 9 puntu |
| 5. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 8 puntu |

1

**Jon Muruamendiaraz**
Mondra

2

**Gorka San Vicente**
Bergara

3

**Jon Altzola**
Bergara

4

**Eric García**
Aretxabaleta

5

**Iosu Zubikarai**
Bergara

**Goienkaria**

## Kirolaburrak



### ARRANTZA/OÑATI

Domekan, apirilaren 13an, Oñatiko ArrantzaTxapelketa jokatuko da Arantzazuko barrutian. Pago Uso elkarteak eta Alzu-Arrese arrantza dendak antolatu dute. 09:00etan Zuazola zubian elkartuko dira partaide guztiak, eta lehiaketa hasiko dute. Parte-hartzaileei eta bertara gerturatzen diren ikusleei hamarretakoa banatuko diete. Horrez gainera, antolatzaileek jakinarazi dute parte hartzen duten arrantzale guztiendako egongo direla sariak. Izena emateko Alzu-Arrese arrantza dendara joan beharko dira interesatuak eta azken eguna bihar, apirilak 12, izango da.

### PILOTA/ARRASATE

Pilota jaialdia izango da bihar, apirilak 12, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. 17:00etan hasita hiru partida ikusteko aukera izango dute pilotazaleek. Kokak eta Raik Eskuz Banakako Txapelketako partidua jokatuko dute. Eguaztenean aukeratu zituzten pilotak. Gainerako bi partiduak binakakoak izango dira: hain zuzen ere, Unanuek eta Errastik Esainen eta Armendarizen aurka jokatuko dute eta Retegi VI.ak eta Medinak osatutako bikoteak Azpirozen eta Bengoetxearen aurka neurtuko ditu indarrak.

### FUTBOLA/DEBAGOIENA

Gazte mailako futbol torneoa antolatu du Real Sociedad klubak. Aste Santuan jokatuko da txapelketa, apirilaren 18tik 21era bitartean, liga erara. Gipuzkoako hainbat herritan izango dira jokalari gazteak, eta Debagoiena ere bisitatuko dute. Arrasaten Athleticek eta Gipuzkoako Selekzioak jokatuko dute hilaren 18an; Bergaran, apirilaren 19an, Italiako Atalanta taldeak Gipuzkoako Selekzioaren aurka jokatuko du; eta Oñatin, berriz, Bartzelona eta Reala izango dira aurrez aurre, hilaren 20an. Partidu guztiak 17:00etan jokatuko dira.

### TXAKUR LERAK/BERGARA

Elurrarekin lotu izan ditugu askotan txakur lerak. Elurrik ez dagoen arren, lerarik ez da falta izango datorren domekan Bergaran. 11:00etan hasita, 40 musher (lera gidari) inguru lehiatuko dira Gorlan, Kantinatik Trekutzera bitarteko 9,5 kilometroko ibilbidean. Maila handiko musherrak batuko dira lasterketan, eta, besteak beste, Axen Garitano bergararrak hartuko du parte. Proban parte hartuko duten txakurrak aurrez ikusi nahi dituenak horretarako aukera edukiko du bihar, zapatua, Bergarako Seminarioan jarriko dituzte-eta ikusgai. Bide batez, txakur lera probetarako materiala egongo da salgai Seminarioan.

### AIZKORA/ARAMAIO

Arbel Eguna dela eta hainbat ekitaldi izango dira bihar, zapatua, Aramaion. Tartean Urrezko Aizkora lehiaketaren VI. aldiko kanporaketa jokatuko da herriko pilotalekuan, 17:15ean. Hain zuzen ere, Lekunberriko Jose Juan Barberenak Arriarango Iñaki Azurmendiren aurka neurtu beharko ditu indarrak. Hamar enbor ebaki beharko dituzte. Egun eta leku berean, 22:00etan hasita, profesionalen arteko eskuz binakako pilota jaialdia izango da. Badiola III.ak eta Gabarri II.ak Legorburu eta Errandonearen aurka jokatuko dute. Partidu horren aurretik herriko pilota eskolako gazteak ibiliko dira.

# 1.378 txartel bateratu daude Debagoienean

## Batez ere, Arrasateko eta Oñatiko kirol etxeetan erabili dute

**Urtarrila ezkero, ibarreko kirolariek kirol txartel bateratua dute eskuragai. Hirugarren adinekoak, gimnasiora joateko ohitura dutenak, edo beste edozein kirol egiteko joera duten hainbat lagun dagoeneko egin dira txartel horren jabe.**

Horrela, txartel bakarrarekin, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko kirol etxeak erabiltzeko aukera izango dute debagoiendarrek. Bergaran, esaterako, Agorrosingo kirol etxea konpontzen dihardute. Hori dela eta, bergararrak Debagoieneko gainerako kiroldegietara joan ahal izango dira.

Urtarrilaz gero dute eskuragai kirolzaleek txartela, eta lehen hiru hilabeteak pasatu ostean, erabilera datuak kaleratu dituzte Debagoieneko kirol zerbitzuetako arduradunek. Datu horien arabera, guztira 1.378 txartel daude Debagoienean eta 3.748 aldiz erabili dute lehen hiru hilabeteetan. Txartel jabeek gehien erabili dituzten kiroldegiak Arrasatekoa eta Oñatikoa dira. Kirol txartel bateratu jabe gehien dituzten herriak, berriz, Arrasate bera eta Bergara dira.

Kirolari bakoitzak erabaki dezake nork bere herriko txartela edo ibarrekoa eskuratzea, baina Debagoienekoa hautatuz gero zenbait herritako bizilagunek kirol zerbitzu gehiago izango dituzte aukeran.

Kostuari dagokionez, herri batzuetan apenas du alderik txartel bat edo bestea hautatzeak. Hala, 18 urtetik beherakoek, langabeek eta ikasleek 71,50 euro ordaindu behar dituzte herrian; 18 urtetik gorakoek, 102,65 euro; eta txartel familiarra egiten dutenek, berriz, 143 euro.

| | TXARTEL BATERATUEN KOPURUA | ARETXABALETARA | ARRASATERA | BERGARARA | ESKORIATZARA | OÑATIRA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ATXABALTARRAK | 235 | | 258 | 0 | 166 | 61 | **485** |
| ARRASATEARRAK | 434 | 367 | | 0 | 467 | 310 | **1.144** |
| BERGARARRAK | 488 | 52 | 999 | | 33 | 682 | **1.766** |
| ESKORIATZARRAK | 44 | 50 | 95 | 0 | | 25 | **170** |
| OÑATIARRAK | 109 | 29 | 120 | 0 | 29 | | **178** |
| **GUZTIRA** | **1.310** | **498** | **1.472** | **0** | **695** | **1.078** | **3.743** |
| | | 13,3% | 39,3% | 0,0% | 18,6% | 28,8% | |

**Lehen hiru hilabeteetan debagoiendarrek 3.748 aldiz erabili dute kirol txartel bateratua.**

## KIROL ZERBITZUEN BERRIAK

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO
Talde osoa emakumearen eskura

Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia ........ Antonio Estomba
Menopausia ........ Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa ........ Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa ........ Jose M. Gómez
Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak ........ Domingo Murgiondo
Obstetrizia ........ Miguel Gabarain
Psikosexualitatea ........ Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia ........ Fatima Azkue
Hezur dentsitometria ........ J. Rodríguez

**Arrasateko kontsultategia:**
**Zerkaosteta 17, behea**
**Tel.: 943 79 20 18**

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

# Gazte ikastaroak Arrasaten

## KLOWN
- Irakaslea: Idoia Sánchez
- Egutegia: maiatzaren 8tik ekainaren 12ra
- Egunak: eguenetan
- Ordutegia: 18:00-20:30
- Matrikula: 30 € / 15 € ikasle edo langabeendako
- Lekua: Monterronen

## IRRATIA
ESATARITZA TAILERRA
- Irakaslea: Gaizka Bitoria
- Egutegia: ekainaren 28tik uztailaren 26ra
- Egunak: zapatuetan
- Ordutegia: 11:00-13:30
- Matrikula: 30 € / 15 € ikasle edo langabeendako
- Lekua: Arrasate Irratian

## SABEL DANTZA
HASTAPEN ETA SAKONTZE MAILAK
- Irakaslea: Jaione Albeniz
- Egutegia: maiatzaren 10etik ekainaren 14ra
- Eguna: zapatuetan
- Ordutegia: 10:00-12:00 hastapen maila
  12:00-14:00 sakontze maila
- Matrikula: 30 € / 15 € ikasle edo langabeendako
- Lekua: Musakolako kiroldegian

## PERKUSIOA
HASTAPEN MAILA ETA ROCK-FUSION IKASTAROA
- Egutegia: maiatzaren 12tik ekainaren 16ra
- Egunak: astelehenetan
- Lekua: Gazteluondoko Ikastolan

## ARGAZKIGINTZA
ASA ELKARTEAREKIN LANKIDETZAN
- Irakaslea: Jon Ruiz de Zarate
- Egutegia: maiatzaren 5etik 28ra
- Egunak: astelehenetan eta eguaztenetan
- Ordutegia: 18:30-21:00
- Matrikula: 30 € /20 € ikasle edo langabeendako
- Lekua: ASAko lokalean

## ZERAMIKA
- Loxie Zeramika Elkarteak antolatuta
- Zapatu goizetan, 10:00etatik 14:00etara

## ENERGIA FOTOBOLTAIKOA
- Basabelar ingurumen energien aldeko elkarteak antolatuta
- Hiru modulu (45 ordu)
- Maiatzaren 10etik uztailaren 19ra

## UDAKO EKINTZAK
### 14 eta 17 urte arteko gazteendako
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta
- Abenturako ekintzak edo hizkuntza egonaldiak
- Hamar eguneko egonaldiak
- Izenematea: apirilaren 29tik maiatzaren 9ra










INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA: GAZTE BULEGOAN • 943 77 00 65
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazte saila




ARGAZKIAK: GOIENKARIA

Bergaratik heldu zen domeka arratsaldean Korrika 13 Debagoienera, eta handik Oñatira abiatu zen. Hurrengo egunean, astelehenean, pasatu zen berriro ere gure ibarretik. Argazkian, Korrika Bergarako kaleetan.

# Harrera beroa egin zion Debagoienak Korrika jendetsu eta koloretsuari

- Aurten bi egunean pasatu da gure ibarretik
- Herri guztietatik, Antzuola, Elgeta eta Aramaiotik izan ezik
- Egun argiz eta eguzkiaren laguntzarekin pasatu da lasterketa








**OSINTXUTIK** Domekan, arratsaldeko laurak inguruan, sartu zen Korrika Debagoienean. Osintxuko neska-mutiko gaztetxoek egin zioten ongietorria lasterketari, eta haiek egin zituzten lehenengo metroak. Domeka eta futbol eguna izaki, Realeko kamisetadunak ere animatu ziren antxintxika egitera. Korrika Bergara erdira heldu zenean, jende multzoa handitu egin zen.

**ANTZUOLARRAK ERE BAI** Aurten Korrika Antzuolatik pasatzen ez zela-eta antzuolarrek Bergaran egin zuten lasterka, Martokoko aldapan, esaterako.



**LEINTZ GATZAGAN, SASOITSU** Behin Gatzagako mendatea gaindituta, maldan behera egin zuten arineketan, Gatzagatik Epeleko bidegurutzeraino. Argazkian, korrikalariak Leintz Gatzagatik gertu.




**ALMEN INGURUAN, JENDETZA HANDIA** Hori sasoia, hori: "Korrika!, Korrika!" oihuka eta, aldi berean, arineketan… Irudi koloretsu politak utzi dizkigu aurtengo Korrikak, parte-hartze handiagatik eta eguzki printza distiratsuengatik, batik bat. Izan ere, eguraldia lagun izan dugu bai domekan baita astelehenean ere.

BERGARA

## Jende ugari eta abiadura bizia, aurtengo aldiaren adierazgarri

Akulu AEK euskaltegiko arduradunen esanetan, Korrikaren 13. aldia ezin hobeto joan da: "Jende ugarik hartu du parte, zenbakirik emateko moduan ez gaude, baina herrian barrena, Matxiategitik San Antoniora bitartean, esaterako, multzoa benetan handia izan zen".

Ordurako sartu zen Korrika Osintxutik, 15:45ean, eta ordu eta laurden eman zuen Elorregira heldu artean. 17:00etan iritsi zen, aurreikusitakoa baino lehenago; izan ere, AEK-ko arduradunen esanetan, "abiadura bizi-bizian egin zuten korrika herritarrek".

Korrika Kulturalaren kasuan denetarikoa egon dela esan dute: "Ekitaldi batzuk oso jendetsuak izan dira eta beste batzuk, ez horrenbeste".

OÑATI

## Herriko kaleak bete-bete egin ziren euskararen alde

Korrika arratsaldeko seietarako iristekoa zen arren, bostetarako bete-bete eginda zeuden Oñatiko kaleak.

Hamabost kilometro egin zituen Korrikak Oñatin, eta ia herri osoak parte hartu zuela esan daiteke. Antolatzaileak eurak ere harrituta geratu zirela adierazi digute Korrikak Oñatin izan zuen erantzunarekin. Herriko 21 taldek eta elkartek erosi zituzten hamabost kilometroak.

Bitxikeriarik ere gertatu zen Oñatin: Zubillagan, esaterako, suhiltzaileek era berezian egin zioten ongietorria Korrikari; kamioiak kanpora atera zituzten, bi suhiltzaile garabi batera igo ziren Korrikaren kartelarekin eta kamioien sirenak jarri zituzten.

ANTZUOLA

## Aurten ez da herritik pasatu, baina korrika egin dute

Korrika ez da Antzuolatik pasatu, baina ospatu dute herrian. Herriko eskolako neska-mutikoek Korrika Txikia egin zuten egubakoitz arratsaldean; Errekaldetik abiatu ziren testigua eskuan zutela, eta herri osoa zeharkatu ostean Herri Ikastetxean bertan bukatu zuten korrikaldia. Han txokolate-jana izan zuten, umeen gurasoek prestatuta.

Domekan Bergarara joan ziren hainbat antzuolar, Korrikan parte hartzera; izan ere, nahiz eta Antzuolatik pasatu ez, Udalak kilometro bat erosi zuen Bergaran, San Antonioko bidegurutzetik Espoloira, hain zuzen ere. Jende ugarik egin zuen korrikaldia tarte horretan. Herriko hainbat enpresak diruz lagundu dute Korrika 13.

LEINTZ GATZAGA

## Umeek izan behar zuten protagonismoa, nagusiek hartu

Gatzagarrek Arabaren eta Gipuzkoaren arteko mugan hartu zuten Korrika 13ren testigua. 17:16an sartu zen Korrika herrian. Eskolako Gurasoen Elkarteko ordezkariak hartu zuen herriko sarreran testigua. Eskolako umeek joan behar zuten haren atzetik pankarta eta guzti. Korrikalari nagusiek, baina, protagonismoa ukatu zieten txikienei, eta herritar batek baino gehiagok haserrea adierazi zuen. Korrika 13ko antolatzaileekin ere ez dira batere pozik azaldu beste herritar batzuk. Izan ere, ibilaldiaren arabera, Landatik Eskoriatzara pasatzen zen Korrika. Astelehenean kale animazioaz arduratu zirenak ibilbidean Gatzaga ageri ez-eta, Gesaltzara joan ziren lehenengo.

ESKORIATZA

## Hamabi eskoriat… zuten Korrika 1…

Bide luzea egitea t… eskoriatzarrei, M… eta Almen ikastet… gurutzeraino, hai… rrak, hala ere, ez … asko izan ziren pu… besteraino korrik… Edorta Zubizarret… zuen lekukoa Gat… eta eskuz esku bes… lagunek eroan zut… rrei eman arte.

Ume eta gaztet… korrikan eta jolas… aukera ere izan z… antolatu zituzten … jolasek izugarrizk… zuten. Korrika 13 … eta giro ezin hobe… nagusi tripa zorri… ratu ziren plazara…




**OÑATIN, GAZTETXO UGARI** Bergaran moduan, Oñatiko sarreran ere gaztetxo ugari hasierako lerroetan. Arratsaldeko seiak aldera zeharkatu zituen Korrikak Oñatiko kaleak. Herriko elkarte, ikastetxe, talde... nagusiek eroan zuten lekukoa, besteak beste, *Egunkaria*-ren eta euskal presoen aldeko mezuen artean.




**LANDATIK BERRIRO** Landatik etorri zen astelehenean Korrika 13 Debagoienera. Eta aramaioarrek egin zituzten lehenengo metroak.




**ARETXABALETA** Batzuk lasterka, eta begira zeudenek oihu eginez animatu zituzten korrikalariak. Haiek, konturatu orduko, Arrasaten zeuden.




**ARRASATEN, JENDE PILOA** Arrasaten batu zen jendetzarik handiena, batez ere, erdialdetik Epelera arteko zatian. Adin guztietakoek eroan zuten, gainera, lekukoa, hala gaztetxoek nola zaharrek.




**KANPANTZARREN, ELGETARRAK** Ikusgarria Epeletik gorako tropela. Kanpantzarren elgetarrek eroan zuten lekukoa, eta Korrika 13ri agur esan genion.

## tzarrek eroan
## ko lekukoa

tokatu zitzaien
arulandan hasi
keko bide
n zuzen. Herrita-
ziren kikildu, eta
nta batetik
an egin zutenak.
a alkateak hartu
zagako mugan,
te hamaika
en aretxabaleta-

xoek, berriz,
ean ibiltzeko
ten. Plazan
herri kirol eta
o arrakasta izan
pasatu ostean,
an, bai ume, bai
a asetzera hurre-
, txistorra jatera.

ARETXABALETA

## Korrikak umeak eta nagusiak batu zituen herriko kaleetan

Eskoletako ume eta gaztetxoak irten ziren lehenengo, Korrika Txikian. Ez zuten Korrikaren ibilbide bera egin, baina ilusio eta gogo biziz egin zuten arineketan euskararen alde testigua eskuan hartuta.

Apurka, jendez betetzen joan ziren Korrika pasatu behar zen kaleak, eta Korrika ailegatu zenean, herritarrek ezin izan zioten pozari eutsi. Alex Elortondo, Iker Akixu, Imanol, Larraitz Arando... eskuz esku joan zen pasatzen testigua; gainerako herritarrek euskararen alde egiten zuten oihu. Jende multzoak bultzatuta eta konturatu ere egin barik aretxabaletar ugari joan ziren Arrasateraino. Herrian geratu zirenei txokolatea eman zieten, indarra berreskuratzeko.

ARAMAIO

## Arabatik Gipuzkoara, aramaioarren eskutik

Nafarrek arabarrei eman zieten Korrikaren lekukoa. Eta, euskararen aldeko lasterketak Arabako bideak bukatzear zituenean, azkeneko kilometroan, hantxe zeuden aramaioarrak, arineketan egiteko gertu baino gertuago. Hain justu, Landa parean hartu zuten Korrikaren lekukoa, eta euren eskutikk iritsi zen Gipuzkoara, Leintz Gatzagatik barrena.

Gaztetxoenek ere izan dute eurendako Korrika. Gaur bertan (egubakoitza) egin dute arineketan, eta gero txokolatea jan dute, indarrak berreskuratzeko. Horrez gainera, astean bestelako ekimenak egin dituzte: bertsoak, kantuak... Eta, Korrika Kulturalaren barruan, zapatuan, herriko elkarte kulturen eskutik jaia izan zuten.

ARRASATE

## Egun argiarekin, mila lagun inguruk hartu zuten parte

Korrika Txikian, ume ugarik euskararen alde korrika egin zuen astelehenean 15:30ean.

18:30ean, herriz herri dabilen Korrika Mugarrira heldu zen. Aretxabaletar eta eskoriatzar asko etorri ziren eta Arrasateko bazter guztietan ume, gazte zein helduek Korrikari ongietorria egin zioten. Korrika Alde zaharrera sartu zenean, mila lagun inguru batu ziren eta taldeak oinez joan behar izan zuen. Nabarmendu beharra dago Arrasaten lekukoa hartu zuen pertsona nagusiena Josepa Arregi *Garratz* izan zela. 84 urterekin, sasoian dagoela erakutsi zuen. Epeletik Kanpanzar arteko aldapari ere gogor eutsi zioten korrikalari askok eta askok, eta Elorrioko mugan agur esan zioten Korrikari.

ELGETA

## Patxi Basaurik eraman zuen lekukoa elgetarren izenean

Elgetarrek ez dituzte korrikalariak herritik pasatzen ikusi aurten, baina herritarren ordezkari modura alkateak eraman du lekukoa Kanpanzarren gora. Elgetarren babesean, nekez egin zuen kilometroa.

Kilometroa, kostatakoa, eta kostuari aurre egiteko dirulaguntza, ezinbestekoa. Udalak, Maya Ingurumen Taldeak, Guraso Elkarteak, Goibeko Kultura Elkarteak eta Sisteco eta Laibe enpresek jarri dute dirua.

Korrikak aurten ere ez du bisitatu Elgeta. Hala ere, herritarrak pozik geratu dira, ***Kutsidazu bidea, Ixabel*** antzezlana eta Txan magoaren ekitaldia izan zituztelako eta Korrika Txikian jende dezente elkartu zelako.

# Korrika Kulturala eta Txikia

■ Kultura ekitaldi ugari antolatu zituzten ibarrean ■ Eskoletako ume eta gaztetxoek Korrika Txikia egin zuten aurretik ■ Antolatzaileak, hunkituta erantzun beroarekin

Korrikaren antolatzaileak –hau da, AEK euskaltegikoak– eta herrietan sortu ziren batzordeetakoak oso pozik eta benetan hunkituta agertu dira Korrika 13k Debagoienean izan duen erantzun zabal eta beroagatik. Azken urteotan gauez pasatu da Korrika gure ibarretik eta, batez ere, gaztetxoenek ez zuten ezagutzen. Aurten, ordea, egunez pasatu da Korrika, arratsaldez, eta sekulako eguraldia egin du, gainera, antxintxika egiteko: eguzkia lagun izan dugu. Korrika arrakastatsua izan bada ere, beste horrenbeste esan daiteke herri guztietan antolatu diren Korrika Txikiez eta kultura ekitaldiez.

Hala, antolatzaileek eskertu egin nahi izan dute Korrika 13n parte hartu dutenek erakutsitako kemena eta diruz lagundu duten udal, ikastetxe, talde, elkarte, enpresen… ekarpena, Debagoieneko bederatzi herrietakoena. Izan ere, Antzuola, Aramaio eta Elgetatik Korrika 13 pasatu ez den arren, herri guztietakoek hartu dute parte lasterketan.



**HERRI KIROLAK ESKORIATZAN** Astelehen arratsaldean, Korrikaren aurretik, izerditan blai ibili ziren Eskoriatzako eskoletako neska-mutikoak herri kiroletan: kaskara jokoa, harri jasotzea…, egin zituzten eta irudi politak utzi zizkiguten gaztetxoen ekinaldiek.



**BENETAKOAK?** Eskolan egindako kartoizko harriak altxatzen ibili ziren, korrika egin aurretik berotze aldera.



**ETORKIZUNEKO KORRIKALARIAK** Arrasaten ere itxuroso ibili ziren arineketan. Estilo dotorea erakutsi zuten.



**KORRIKA KULTURALA GATZAGAN** Korrikaren inguruan ekitaldi piloa antolatu dituzte; Gatzagan, esaterako, hanka-paluak.



**'KUTSIDAZU BIDEA…'** Elgetan, ostera, antzerkia izan zen zapatuan. Espaloia lepo bete zen *Kutsidazu bidea, Ixabel* ikusteko.



**BAITA TXAN MAGOA ERE** Domekan, berriz, Txan magoarekin gozatu zuten Elgetako gaztetxoek: txantatatxan…



**ANTZUOLAN, EGUBAKOITZEAN** Eskolako umeek herria zeharkatu zuten Antzuolan egubakoitzean, Korrika Txikian. Eta gero, txokolate-jana.



**LASTERKA EGITEKO ZAIN** Aretxabaletan neska-mutiko piloak egin zuen Korrika Txikia astelehenean. Arineketan hasi aurretik, lasai, zain.



**KOLORE BIZIAK** Domekan pasatu zen Korrika Bergaratik. Baina egubakoitz arratsaldean egin zuten Korrika Txikia herriko neska-mutikoek. Kaleak kolore biziz bete ziren.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko apirilaren 11

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 11tik 16ra




# OTEIZA HANDIA

## APIRILAREN 9AN ZENDU ZEN DEBAGOIENAREKIIN HARREMAN ESTUA IZAN ZUEN JORGE OTEIZA ESKULTOREA

Eguaztenean, apirilaren 9an, 07:15 zirenean gelditu zitzaion bihotza Euskal Herriko artistarik ezagun eta eraginkorrenetariko bati, 94 urte zituela: Jorge Oteiza eskultore oriotarrari. Eta bere obraren gailurretariko bat Debagoieneko gailur baten utzi digu Oteizak: Arantzazuko Santutegiko Pietatea eta, batez ere, Apostoluen eskulturak, hain zuzen ere.

Artista zein pertsona bezala, inor ez zuen hotz uzten Jorge Oteizak. Artista osoa izan zen, diziplina batetik bestera naturaltasunez pasatzeko gauza zena: eskultura eta arkitektura jorratu zituen batez ere, eta horiei esker sartu da Oteizaren izena gaur egungo artista bikainenen zerrendan; baina marrazketa eta poesia ere landu zituen, eta horietan ere bere izaera sendo eta zorrotzaren zigilua utzi zuen Jorge Oteizak. "Metafisikoa", "hutsaren eta isiltasunaren eskultura" berba eta esaldiak sarri erabiltzen dira Oteizaren lana deskribatzeko. Batzuek diote Oteizaren mezua hain sakona izanda oraindik ez dugula guztiz ulertu; horregatik, jeinuen kategoria esklusiboan sartzen dute askok Jorge Oteiza.

Baina bere artearen gainetik, izaerak distiratzen eta erakartzen zuen Jorge Oteizarengandik. Ezagutzen zutenek –tartean, hainbat debagoiendarrek– esaten dute bere "koherentziari" eta "zentzu kritikoari" bizitza osoan eutsi ziela. LEIRE KORTABARRIA /18

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: 'OTEIZA PROPÓSITO EXPERIMENTAL' LIBURUTIK HARTUTA

PERTSONAIAK/ JORGE OTEIZA ORAINGO ASTEAN ZENDU DA, IBARREAN HAINBAT OBRA UTZITA

# Jeinu baten harremana ibarrarekin

JORGE OTEIZA ESKULTORE ORIOTARRAK HIRU LAN EZAGUN ETA HAMAIKA LAGUN ETA JARRAITZAILE UTZI DITU DEBAGOIENEAN

LEIRE KORTABARRIA

**Zer dela-eta daude hamalau apostolu?". Horixe galdetzen dute Arantzazura joaten diren bisitari askok. Jorge Oteiza (Orio, 1908-Donostia, 2003) ezagutu duten debagoiendarrek ondo dakite Arantzazun hamalau apostolu egin izana ondo zetorkiola artistaren izaerari.**

Azken 94 urteotan harridura, eztabaida, miresmena… berdin-berdin piztu dituen gizon kementsua joan zaigu. Obra aberatsa eta iraultzailea utzi digu artistak, eta obra horren hiru adibide Debagoienean daude. Tartean, ospe handien eman ziona: Arantzazuko Apostoluak. Santutegiko Pietatearen irudia ere Oteizak egin zuen. Oñatiko Unibertsitatean beste eskultura bat du, eta azken bat Arrasateko Olandixo auzoan. Adituek diote abangoardiaren puntan zegoela, inork baino harantzago ikusten zuela.

**HAMALAURENDAKO LEKUA**

"Hamalau apostolurendako lekua zuela esan, eta hamalau egin zituen", dio Pello Zabala Arantzazuko frantziskotarrak. Artistari gutxi axola zitzaion klasikotasunaren zaleek esango zutena. Halaxe jokatu izan zuen bere bizitza osoan, "koherentzia osoz", ibarreko lagunek dioten moduan. Hori bai, zera dio Pello Zabalak: "Berak ez zuen polemika hori sortu; eliza betiko estilora nahi zutenek sortu zuten".

Zabala oraindik mutikoa zen Oteiza ezagutu zuenean: "Hark 43 bat urte izango zituen, eta han ikusten genuen, lan eta lan. Guri heldua iruditzen zitzaigun, bizar zuriarekin, keinu haiek egiten…" Halakoa zen Oteiza: erraz inpaktatzen zuen pertsona.

**UMORE SAKONA**

Ibarreko beste lagun batek, Jose Mari Velez de Mendizabal idazle aramaioarrak, beste pasadizo bat gogoratzen du: "Hark beste azalpen bat eman zidan apostolu kopuruarendako. Esan zuen komando baten beti bajaren bat izaten zela, eta badaezpada ipini zituela hamalau". Velez de Mendizabalek artista bezala baino gehiago, gizon "umoretsu" bezala du gogoan Jorge Oteiza: "Oso uste zabaldua zen gizon ozpina zela, jeinu txarrekoa, baina oso umore sakona zuen. Ezin zenezakeen hurrengo minutuan egingo zuena aurresan", dio.

Idazle bezala, *Quosque Tandem* oriotarraren poesia liburua estimatzen du Jose Mari Velez de Mendizabalek: "Asko gozatu dut liburu horrekin. Gure belaunaldiko kulturarekiko dugun jarrera definitzerako orduan, eragin handia izan du Oteizak".

Jeinu handiko –zentzu guztietan– Oteiza deskubritu nahi duten debagoiendarrek Arantzazura jo dezakete, eta han, Oteizak egiten zuen moduan, apostoluen azpian etzan, gora begira. Horrela antzematen ei da ondoen haren lanaren indar itzela.



**'ARRI ERNAI ZAINTZAILEA', 1974 / ARRASATE**
**Euskal Herriko eta kanpoko erakundeendako hainbat lan egindakoa dugu Jorge Oteiza. Tartean, Arrasateko Euskadiko Kutxaren egoitza nagusiaren aurreko aldean dagoen eskultura ikusgarri hori. Harriz egindakoa da, eta 287 x 324 x 300 zentimetro neurtzen du.**



**'APOSTOLARIOA', 1953-69 / ARANTZAZU**
**Oteizaren lan ezagunena, eta polemikoenetariko bat, Arantzazuko elizaren aurreko aldeko 14 apostoluen irudia da. Apostolu bakoitzak bere berezitasuna du, desberdin egiten duen ezaugarriren bat: horrela, batek burua estaltzen du besoekin, beste bat gorantz begira dago…**



**'LURRA ETA BILARGI', 1995 / OÑATIKO UNIBERTSITATEA**
**Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea Errenazimenduko egoitzarik garrantzitsuenetako bat da Euskal Herrian. Garai hartako formekin kontrastean, bertako klaustroetan ikus daiteke Oteizaren azken urteotako lan hori, Oñatirekin zuen harreman bereziaren lekuko.**



**IÑIGO ARREGI**
**Margolaria / Arrasate**

Euskal Herrian gerra osteko artistarik handiena izan da, nire iritziz. Arantzazuko Santutegian ezagutu nuen, eta, pertsona bezala oso berezia zen, pertsonalitate handiko gizona, eta sinisten zuenarekin kontsekuentea.

Obrari dagokionez, Arantzazuko konplexua nabarmenduko nuke. Grabatzaile moduan ere bikaina zen Jorge Oteiza, nire iritziz.



**JESUS MARI LAZKANO**
**Margolaria / Bergara**

Mugarri garrantzitsua da Jorge Oteiza euskal artistondako. Nik uste dut ez dugula oraindik Oteizaren mezua oso-osorik ulertu, haren mailan ez gaudelako. Eta orain, berriro mezu horretan sakondu beharra dugu. Mezu hori zen gure mundu txikitik, Euskal Herritik, kanpora begira jarri behar dugula, gure pentsamenduaren eta izpirituaren bidez.



**IÑAKI JAUREGIALTZO**
**Eskultorea / Oñati**

Beti izan dut estimu handian Oteizaren lana, batez ere, Arantzazukoa, eta erreferente moduan dut. Gandiagaren eskutik poesia landu zuen, eta emari hura oso garrantzitsua izan zela deritzot.

Nire azken lanetarako Oteizaren ideia batzuk hartu ditut abiapuntu moduan, beti ere, Oteizari esker ona adierazteko, eta hari omenaldi moduan.



**MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA**
**Margolari eta eskultorea / Bergara**

Azken 50 urteotako euskal artistarik handiena da Oteiza. Nazioartean ere, nahiz eta hura oso kritiko izan eta komertzialtasunetik aldendu, garrantzi itzela du.

Oso esanguratsua da 1950ean eman zuen bira: eskultura utzi eta poesiara egin zuen jauzi, eta bere buruarekiko domeinu hori oso artista gutxik duten bertutea da.

**ERAKUSKETAK/ ESPAINIAKO GERRAREN GAINEKO BI ERAKUSKETA OÑATIN**

# "Ez dadila berriro gertatu"

## 36KO GERRAN FUSILATUTAKOEN MEMORIA BERRESKURATZEKO, BI ARGAZKI ERAKUSKETA ZABALDU DITUZTE

LEIRE KORTABARRIA

**Orduan gertatu zena ez dadila berriro sekula ere gertatu". Horixe izan zen Gerra Zibilaren gaineko bi argazki erakusketen aurkezpenean arduradunek bidali nahi izan zuten mezua. Gerra hartako aurpegi eta irudi mingarriak ikusteko aukera dugu Oñatiko kultura etxean.**



L.K.

Jende ugari gerturatu zen erakusketon aurkezpen ekitaldira, joan den martitzenean.

Bi erakusketak bat egin dute Oñatiko kultura etxeko erakusketa aretoan: batak, Espainiako gerran debagoiendar fusilatuen senitarteko eta lagunen batzordeak antolatutakoak, *Hazia erein zenutenoi* du izenburua, eta Debagoieneko herri guztietako ehundik gora fusilaturen "ordain morala eta errekonozimendua aitortzea" du helburu. Horretarako, hainbat muraletan herri bakoitzean fusilatutako debagoiendarren erretratuak eta datu biografikoak azaltzen dira. Batzordeko kide Juan Ramon Garai arrasatearrak diosku hau ez dela zerrenda itxia: "Egunetik egun, kasu gehiagoren berri jasotzen dugu", dio.

Erakusketaren inaugurazio egunean bertan, martitzenean, fusilatuen hainbat senide inguratu ziren, eta datu gehiago batzen ibili ziren.

### SABINO ARANA ELKARGOA

Bigarren erakusketa *¡Nunca más!, gerra guztien aurkako jarrera tinkoa* deitzen da, eta Sabino Arana Kultur Elkargoak antolatu du. Horrek Espainiako gerrako irudiak dakartza, idazle, pentsalari eta lekukoen idatzi laburrekin. Gerraren aurpegi hunkigarrienak argitara ekartzen ditu, lirikotasunez baina dramatikotasunez betetako irudiokin.

Erakusketa apirilaren 24ra arte egongo da ikusgai Oñatiko kultura etxean; 17tik 21era, baina, itxita egongo da kultura etxea. Debagoieneko batzordearen erakusketa ibarreko herri guztietatik pasatuko da.

### AURKEZPEN EKITALDI JENDETSUA

Erakusketok populazioa memoria historikoaren berreskuratzearen gainean inoiz baino sentsibilizatuago dagoen unean datoz. Eta hori bistan zen aurkezpen ekitaldi arrakastatsuan. Francisco Etxeberria Aranzadi Zientzia Elkarteko auzitegiko medikuak azaldu zuen hilobi komunetako gorpuak berreskuratzeko egiten diharduten lana, eta datorren udan areagotu egingo dena. Zera esan zuen Etxeberriak: "Hildako haien memoria errespetatzearren gabiltza lan hau egiten". Eta zera azpimarratu zuen: "Ezinbestekoa da berreskuratze lan hori lehenbailehen egitea, eta hilobi komunen kokapenaren, gorpuen egoeraren… gaineko ahalik eta datu gehien jasotzea, akaso, etorkizunean bateren batek lan horrekin jarrai dezan".

**NIREAUKERA**



## 'EDUARDO MANOSTIJERAS' Tim Burton

**Filmei dagokienez, fantasiazko eta irudimen handiko istorioak ikustea gustatzen zait. Asko gustatu zait, adibidez, orain dela ez asko ikusi ahal izan genuen *Spider Man* filma. Nire film gogokoenetariko bat, edozelan ere, zaharragoa da: Tim Burton estatubatuarraren *Eduardo Manostijeras* da, Johnny Depp eta Winona Ryder aktoreekin. Esan bezala, fantasia handiko filma da, baina beste ezaugarri batzugatik ere aukeratu dut: izan ere, istorioa bera oso erromantikoa da, eta, batez ere, ezinezko amodio istorio bat da, ezin izan daitekeen edo *debekatua* dagoen amodioa, alegia.** /L.K.



**Ivan Vaz**

Aretxabaleta, 23 urte, moda diseinatzailea. Gasteizen desfilea prestatzen dabil.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Narratiba




**16 IPUIN AMODIOZKO**

**X. Mendiguren Elizegi**
Susa Narratiba
232

Bere azken urteotako ibilbideari jarraituz, fikzioa eta oroitzapena nahasten dituen obra idatzi du Xabier Mendigurenek. Oraingo honetan udalekuen girora eramango gaitu, batetik, eta trantsizio politikoaren garaira, bestetik, hainbat adoleszenteren eskutik. Anekdota pertsonala gainditu, bizitzarekiko sentimendu batzuk transmititu nahiko lituzke egileak, eta irakurlearengan emozio horiek berritu. Poza da, izan ere, liburu honetako sentimendu nagusia, literaturan gai ilunagoak ikusten ohituta gauden arren: mina, tristura, tragedia…

**LIBURUA /** Narrazioa




**ZORION PERFEKTUA**

**Anjel Lertxundi**
Alberdania
181 orrialde

Atentatu beten lekuko izan da 16 bat urteko neska bat. Neska horrek berak kontatzen ditu, handik urte batzuetara, hogeita lau ordu haiek, inguruan eta bere barruan gertatu ziren haustura eta hausnarketak jasota; autoreak, suziri distiratsuen beharrik gabe, maisuen moduan darama irakurlea.

Nobela morala da *Zorion perfektua,* Camus, Sciascia edo Dürrenmatt-ek landu zuten tradizioan kokatua, etika eta estetika txanponaren bi aldeak direla eta bi alde horiek elkarrengandik aldendu nahi ez dituela sinetsita bizi den idazle batek idatzia.

**DISKOA /** Rocka




**BIDEAN**

**Ken Zazpi**
Gor
11 kanta

Taula gain asko pasatu dira lehen singlea atera zutenetik. Single hartatik diskora lau urte pasatu ziren, singlea jende guztiak buruz ikasteko beste denbora. Oraingoa itxuraz gogorragoa dirudien doinuekin dator, baina ez da horrenbeste aldentzen aurreko diskoan Ken Zazpik egiten zuenetik.

Askok entzun gura dituzten hitzak, konpromiso sozialdunak, jarrera politiko batekin… Horrek ere eragiten du jende jakinaren gustuko izatea. Balada ere badakar disko honek: ilargia, sua, izarra, biolinak… Balada batek eskatzen ei dituen guztiak.

# Apirilak 11-18

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Eske hau super guaya da* berbaldia** egingo du Kike Amonarrizek gaur, egubakoitza, udaletxean, 19:00etan.

### ARAMAIO

► **Jose Mari Azkarraga *Lurgorri* zenari** omenaldia egingo diote gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua. Gaur, *Jose Mari Azkarraga. Bizitza eta lan literarioak* hitzaldia egingo du Jose Mari Velez de Mendizabalek kultura etxean, 19:00etan. Bihar, kale bat eskainiko diote *Lurgorri*-ri; liburu eta CD bat aurkeztuko dituzte, eta abar. Kultura etxean izango da, 11:00etan.

### ARETXABALETA

► **Odol ateratzea** egingo dute astelehenean, hilaren 14an, osasun etxean, 16:15etik 20:00etara.

### ARRASATE

► **Debagoieneko fusilatuen senideen batzordeak** batzarra egingo du bihar, zapatua, udaletxean, 11:00etan.

► **Liburu hondatuen azoka** izango da kultura etxean, apirilaren 14tik 30era. Bazkide bakoitzak bi liburu eraman ahal izango ditu.

### BERGARA

► **Bertso bazkaria** izango da bihar, zapatua, Elorregin, 12:00etan. Angel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza ibiliko dira bertsotan.

► **Bertso saioa** izango da bihar, zapatua, frontoian, 22:15ean. Aitor Mendiluzek, Anjel Mari Peñagarikanok, Jose Luis Gorrotxategik, Jon Maiak, Iñaki Muruak eta Mikel Mendizabalek hartuko dute parte.

► **Txakur Ieren X. lasterketa** izango da etzi, domeka, Gorlan, 11:00etan.

### ESKORIATZA

► ***Hazia erein zenutenoi*** Espainiako gerran fusilatutakoen gaineko erakusketa inauguratuko dute hilaren 14an, kultura etxean, 19:00etan.

### OÑATI

► **Euskal Herriarendako unibertsitate propioa** eskatzeko kanpaina bihar, zapatua, bukatuko da, eta ekitaldia egingo dute, 11:00etan, institutuko aretoan. Beste ekintza batzuk ere izango dira.

► **II. Urzelai-Txinparta bertso sariketa** antolatu du Oñatiko Bertso Eskolak biharko, zapatua. Desafio modura izango da; aurten, Markinako Bertso Eskolaren aurka. Larrain-Gain elkartean izango da. 20:30ean afaria egingo dute eta gero, sariketa.

► **Sinadura bilketa kanpaina** abiarazi du Ereitten Herri Ekimenak, udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Horretarako, Notaritzara joan beharra dago. Sinatu gura duzuenok eguazten edo eguenean joan beharko duzue (10:00-13:00 edo 16:00-17:30). Udaletxeko idazkaritzara ere joan zaitezkete, apirilaren 16ra bitartean, egunero, 18:00etatik 21:00etara.

► **Guatemalako Santa Maria Tzeja herriari** laguntzeko argazki erakusketa antolatu dute Oñatiko Gazteak taldekoek, eta herritar guztien parte hartzea eskatzen dute. Euskal Herria izan beharko da argazkion gaia: baserriak, fruitu eta barazkiak, animaliak, herri kirolak… Argibideetarako, jo gaztelekura, apirilaren 16a baino lehen.

► **Etzi, Korrikaren azken jaira, Iruñeara,** joateko autobusak antolatu ditu Laixanek. Txartelak salgai daude Laixanen, Arranon eta Gurian, hamar eurotako salneurrian.

## LEHIAKETAK

### ARRASATE

► **Doke Txapelketa** izango da datorren egubakoitzean, apirilak 18, Monterrongo Kondekua zelaian.

### DEBAGOIENA

► **Espainiako gerran fusilatu zituztenen memoria historikoa berreskuratzeko monolitoa** egingo dute, eta horrendako leloa aukeratzeko lehiaketa deitu du desagertuen senideen taldeak. Debagoienean bizi, lan egin edo ikasten duen edozeinek har dezake parte. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketara. Mugaeguna: maiatzaren 6a. Erabakia lanak jaso eta hamar egunera jakinaraziko da.

### OÑATI

► **Arrantza Txapelketa** izango da etzi, domeka, Arantzazu barrutian, 09:00etan. Pago Uso elkarteak eta Alzu-Arrese ehiza eta arrantza dendak antolatu dute. Zuazola zubian elkartuko dira parte-hartzaileak. Izena emateko azken eguna bihar izango da, zapatua, Alzu dendan (Arantzazuko Ama 2).

## MUSIKA

### BERGARA

► **Piano eta flauta kontzertua** izango da gaur, egubakoitza, Musika Eskolaren egoitzan, 19:00etan.

► **The Cynics eta Michael Katon** taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Culture** taldearen saioa izango da hilaren 16an, Jam aretoan, 22:00etan.

### OÑATI

► **Jose Mari Anduaga musikari oñatiarrak** *Bizitza Bera* lehenengo diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Santa Ana aretoan, 22:30ean.

► **Fly shit** talde bergararrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, gaztelekuan, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

### BERGARA

► **Anton Arrillagaren** margo erakusketa dago ikusgai apiril osoan Nahikari tabernan.

### OÑATI

► **Espainiako gerran fusilatutakoen gaineko bi erakusketa** egongo dira kultura etxean apirilaren 24ra arte -17tik 21era izan ezik. Bisita orduak, hauek: astelehenetik egubakoitzera, 18:30-19:30; asteburuetan, horrez gain, 12:00-14:00.

► ***Ipuinez ipuin, haur literaturaren aretoa*** erakusketa egongo da kultura etxean apirilaren 30era arte.

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► ***Trabena espekta-kuloa* antzezlana** egingo du Goaz taldeak gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Jon Zabal ilusionistaren emanaldia** izango da gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, 00:00etan.

### ELORRIO

► ***Cara de Plata* antzezlana** egingo du Al Suroeste Teatro-Teatro i Piau



► KONTZERTUAK

## DISKO BERRIA AURKEZTUKO DU ZEBDA TALDEAK, BIHAR, JAMEN

Frantziako Toulouse hirian, oran dela 15 urte, hasi zen Zebda taldearen historia. Lehen lau urteetan, *frantziar rock*-a delakoan euren zigilua utzi zuten, zuzeneko hamaika saiori esker. Laster, argi geratu zen taldeak bazuela zer esan, eta bazekiela zelan kontatu. Izan ere, Toulouse etorkinen eta langileen hiria da, eta Zebda-ko kide guztiek Frantziatik kanpoko sustraiak zituzten, eta, bestalde, langile klasean jaioak ziren. Gai horiek ziren euren abestien mamia. Mano Negra, Asian Dub Foundation, The Clash, The Specials… aipatzen dituzte euren eraginen kapituluan, baina Zebdak bere estilo propioa du. Jam aretoan izango dugu hori entzuteko aukera. *Utopie d'Occase* disko berriko doinuak eskainiko dituzte Bergaran.

**Non:** Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** bihar, zapatua, apirilak 12. **Ordua:** 22:00etan. **Txartelak:** 18 eurotan, lehiatilan.




ARRASATE ORTOPEDIA

Maalako Errabala 8
Tel.: 943 77 20 78

Osakidetzarekin eta
Lagun Arorekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
**Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea**

**Oinaren azterketak:** tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
**Umeak:** hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.
**Materia bigunen erabilera:** oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
**CAD/CAM sistema:** Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
**Neurrira eginiko oinetakoak.**
**AEBetatik inportatua.**

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

LAGUNTZA TEKNIKOAK

- Esku-oheak
- Garabi elektrikoak
- Eserlekuak (Bainurako eta dutxarako)
- Inodorozko jasogailuak
- Ohe elektrikoak
- Eskaren aurkako koltxoiak
- Gurpil-aulki elektrikoa

Bisita gaitzazu, **www.ortopediaarrasate.com** web orrian



## ‘EUSKARA SENCILLOAREN MANIFIESTOA’

“Euskaltzaindia Berria sortu dugu, eta hona gure lehen fruitua: Euskara sencilloaren manifiestoa”. Horra hor Patxo Telleria eta Mikel Martínez aktoreen antzezlanaren mamia. Eskoriatzako unibertsitatean ikusi ahal izango duzue, gaur, egubakoitza, 22:30ean.

taldeak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

► ***Marixe* umeendako txotxongilo, musika eta dantza emanaldia** egingo du Kresala dantza taldeak etzi, domeka, Arriola aretoan, 17:00etan.

### OÑATI

► **Su eta malabare emanaldia** egingo du Lesnadies taldeak bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:00etan.

## BIDEOA

### OÑATI

► **Gore, fantasiazko eta beldurrezko zinema zikloaren barne,** *La matanza de Texas* eta *Reanimator* filmak ikusteko aukera egongo da datorren egubakoitz gauean, hilaren 18an, gaztelekuan.

## JAIAK

### ARAMAIO

► **Arbel Eguna** ospatuko dute bihar, zapatua.

### BERGARA

► **Erramu Zapatuko feria** izango da bihar, zapatua, egun osoan zehar, Ibargarai hiribidean, Aranzadi Ikastolan eta San Martin Agirre plazan.

### ESKORIATZA

► **Dantzari eguna** ospatuko dute etzi, domeka. 09:30etik 17:30era, hainbat dantza emanaldi izango dira. Eguraldi txarra izanez gero, ekintza guztiok kiroldegian izango dira.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Dantza afrikar ikastaroa** izango da maiatzaren 20tik aurrera, eta izenemate epea zabalik dago. Interesa duzuenok jo Azkena tabernara eta utzi 30 euro eta telefono zenbakia.

### ARRASATE

► **Energia fotoboltaikoaren gaineko** ikastaroa egingo dute maiatzaren 10etik aurrera. Izena emateko, deitu 679 69 33 18 edo 943 79 00 65 telefonoetara, apirilaren 22an edo 23an.

### BERGARA

► **6 eta 16 urte arteko ume eta gaztetxoendako** margo ikastaroa antolatu du Beart Bergarako Pintoreen Elkarteak. Uztailean izango da, astelehenetik egubakoitzera (10:00-12:00), euren egoitzan. Izena emateko, deitu honako telefonoetara: 653 71 53 82 (Mayra) edo 615 75 60 19 (Oihana).

# Zinema

## ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

***Riesgo extremo***
Zapatua eta domeka: 17:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

## BERGARA

■ **NOVEDADES**

***El americano impasible***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Star Trek: Némesis***
Zapatua eta domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna

## OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

## EIBAR

■ **UNZAGA**

***Destino final 2***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Recién casados***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

## GASTEIZ

■ **GURIDI**

***El núcleo***
Egunero: 17:00.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta domeka: 17:00, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

***El último golpe (Heist)***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Johnny English***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Evelyn***
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 19:45.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El americano impasible***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 22:30.

***La prueba***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Atrapada***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***La prueba***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:45.
Domeka: 20:00, 22:30.

***Mortadelo y Filemón***
Egunero: 17:15.

***Las horas***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***La presa***
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Domeka: 22:45.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***El núcleo***
Egunero: 17:15.

***Destino final 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00.

***Johnny English***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Recién casados***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Evelyn***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:45.
Domeka: 20:00, 22:30.

***Los Thornberrys***
Egunero: 17:30, 20:15.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***El hombre del tren***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 22:30.
Zapatua: 17:30, 22:30, 01:00.

***Bowling for Columbine***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Mi vida sin mí***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Marie-Jo y sus dos amores***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Emil eta detektibeak***
Egunero: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:30, 17:30.

***El sueño de Valentín***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***El guerrero***
Egunero: 20:00.

***Adaptation, ladrón de orquídeas***
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.

■ **STER ZINEMAK**

***Chicago***
Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:40, 00:55.
Domeka: 20:25, 22:40.

***El núcleo***
Egubakoitzetik domekara: 17:45.

***La prueba***
Egubakoitza eta zapatua: 18:10, 20:30, 22:50, 01:10.
Domeka: 18:10, 20:30, 22:50.

***Daredevil***
Zapatua eta domeka: 16:00.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza eta zapatua: 21:45, 00:55.
Domeka: 21:45.

***Recién casados***
Egubakoitza: 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza: 18:10, 20:00, 21:45, 23:30.
Zapatua: 16:25, 18:10, 20:00, 21:45, 23:30.
Domeka: 16:25, 18:10, 20:00, 21:45.

***Destino final 2***
Egubakoitza: 18:00, 19:55, 22:00, 00:00.
Zapatua: 16:05, 18:00, 19:55, 22:00, 00:00.
Domeka: 16:05, 18:00, 19:55, 22:00.

***Mortadelo y Filemón***
Zapatua eta domeka: 16:00.

***Atrapada***
Egubakoitza eta zapatua: 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 18:15, 20:25, 22:35.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 01:00.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 01:00.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

***Los Thornberrys***
Egubakoitza: 18:05, 19:55.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:05, 19:55.

***Johnny English***
Egubakoitza: 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Zapatua: 16:10, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 16:10, 18:05, 20:05, 22:05.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***El núcleo***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:20, 00:45.
Domeka: 12:15, 17:00, 19:45, 22:20.

***Johnny English***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:05, 20:05, 22:05.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Destino final 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:00, 20:00, 22:00, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:00, 20:00, 22:00.

***La presa***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:10, 20:00, 22:05, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:10, 20:00, 22:05.

***La prueba***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 17:55, 20:05, 22:25, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:40, 20:10, 22:30.

***Este cuerpo no es el mío***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

***El último golpe (Heist)***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***El sueño de Valentín***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30, 00:30.
Domeka: 16:30, 20:30.

***Empire***
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 12:15, 18:30, 22:30.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:30.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:30.

***Atrapada***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***Recién casados***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:10, 20:05, 22:10, 00:20.
Domeka: 12:15,16:15, 18:10, 20:05, 22:10.

***Chicago***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35.

***Las horas***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 20:30, 22:30.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 23:00.
Domeka: 22:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

*Las horas: ●●●● / Chicago: ●●●● / A propósito de Schmidt: ●●● / Gángsters de Nueva York: ●●● / Mi vida sin mí: ●●● / El americano impasible: ●●*

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### EL LADRÓN DE ORQUÍDEAS

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Spike Jonze.
**AKTOREAK:** Nicolas Cage, Meryl Streep, Chris Cooper.

Badira ikuslearen konplizitatea eskatzen duten filmak. Hori da *El ladrón de orquídeas*-en kasua. Filma Charlie Kaufman gidoilariak proposatutako joko antzeko bat da. Errealitatea eta fikzioa nahastu egiten dira, eta denbora eta tonu aldaketa handiak daude: komedia eta drama nahastu egiten dira, dena burugabeko thriller batekin bukatzeko. Jokoa onartuz gero, ikusleak lan original eta zoro batekin goza dezake; kontrako kasuan, ostera, gerta daiteke ikuslea zinematik izututa irtetea.

Filmaren hasieran, Charlie Kaufman gidoilariari, Susan Orlean-en *El ladrón de orquídeas* liburua zinemara egokitzea proposatuko diote. Enkargu hori egiteko, Kaufmanek liburuaren edukia erabiliko du, eta horri errealitateko pertsonaiez (Charlie Kaufman, Susan Orlean, John Laroche) eta fikziozko pertsonaiez (George Carlie-ren bikia) osatutako fikzioa gehituko dio. Horrekin guztiarekin, gidoilariak filmaren bi herenetan pertsonaia dudatsuen (buruari mila buelta ematen dioten eta bizitza sufrimendu bihurtzen duten horietakoak) eta obsesionatu barik bizitzari aurre egiten jakiten duten pertsonaien gainean berba egiten digu. Eta, horrez aparte, filmak gidoi bat idazteko prozesuaren zailtasunak eta buruhausteak erakusten dizkigu.



Istorioaren pertsonaia nagusia bikiak diren bi pertsonaiatan banatzen da: bata, sortzeko prozesuarekin atsekabetua bizi den idazlea; bestea, pozik bizi den eta thriller sinestezinak idazten dituen gidoilaria. Eta anaia arteko harreman horiek, kalitatearen eta komertzialtasunaren arteko gatazka erakusteaz gain, filmaren izaera finkatuko dute. Ematen du filmaren bi herenak Kaufman artistak eginak direla, eta azkeneko herena, berriz, koherentziarik gabeko Kaufmanek egina dela. Pertsonaiek, bi zatitan, oso izaera eta jokatzeko modu desberdinak azaltzen dituzte. Horrela, bi zatien arteko desoreka dramatiko bitxia sortzen da.

Esan dezakegu *El ladrón de orquídeas* serioak diren gaiak erabiltzen dituen broma handia dela.

ANTONIO ZABALA

**SARE INMO f3 inmobiliaria**
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

## ETXEBIZITZAK

**ARRASATE**
- 48 m²-ko etxebizitza alde zaharrean. Logela bi, bainugela bi, sukaldea eta egongela. 19.500.000 pezeta.
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.

**BERGARA**
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.
- 55 m². Logela bi, egongela, sukaldea eta bainugela. Erdi berritua. 21.000.000 pezeta.

**ANTZUOLA**
75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.26.800.000 pta.

## ALOKAGAI
- **Arrasate.** 7 logela, 10 ohe, berogailua, egokitua. Langileendako egokia.

## BERGARA
- Pabilioiak salgai edo errentan Bergaran.

**Eskaera handiagatik etxebizitzak behar ditugu salgai edo alokagai.**

**KOROSTI INMOBILIARIA**
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**Santi Kutz 8 • LEGAZPI**
**Tel.: 943 73 05 25**

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Koldo Elizalde 85 m²
- Zubiaurre 60 m². Kanpora ematen du. Egoera ona.
- Zubiaurre 60 m². Egoera ona. Prezio ona.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**
**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**
**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ZERO KILOMETROKO AUTOETAN ESKAINTZA BEREZIAK**

- Focus TDdi 02
- Focus TDdi 02
- Focus 16 i 02
- Focus 18 i 02
- Mondeo 18 i 03
- Mondeo TDdi 03
- Fusion 16 i 03
- Fiesta TDCi 03
- Conect TDCi 03
- Transit TDi 03
- Focus ST-170 03

**MUGARRI**
**943 79 75 64**

**Garbi S.L.**

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**
**943 33 18 37 (HERNANI)**
**649 84 67 09 (BERGARA)**

**OÑATI**
**ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI**
**943 71 60 91**

**ARETXABALETA**
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.**
**943 77 03 08**

**BERGARA**
**DISEINUAN DAKIEN NESKA BEHAR DA, ERAKUSTOKI BATEN ORDUKA LAN EGITEKO.**
**667 53 69 88**

**ARRASATE**
**PERTSONA BAT BEHAR DA TABERNA BATEN LAN EGITEKO.**
**943 79 00 34**

**LAN ESKAINTZA**
**INGENIARITZAKO ENPRESA BATEK AUTOCAD-EN LAN EGITEKO DELINEATZAILE EDO INGENIARITZAKO IKASLE BAT BEHAR DU ARRATSALDEETAN EGUN ERDIZ LAN EGITEKO.**
**635 73 06 14**

**BERGARA**
**TABERNA BATEN ZERBITZARIA ETA GAUERAKO (20:30TIK AURRERA) GARBITZAILEA BEHAR DIRA.**
**943 76 50 99**

**ARRASATE**
**KIMETZ TABERNAN LAN EGITEKO PERTSONA BAT BEHAR DA.**
**943 79 60 14**

**ARRAOTZ**
**ERRETEGIA EMATEN DA ERRENTAN OÑATIKO ARAOTZ AUZOAN. JARDUN ONEKO NEGOZIOA.**
**943 79 22 74**
**943 79 18 42**

**ARRASATE**
**ZERBITZARIA ETA SUKALDARIA BEHAR DIRA KAFETEGI BATEN LAN EGITEKO.**
**656 74 78 23**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Elorrio.** Apartamentu berria salgai. 45 m². Logela bat, bainugela, sukaldea eta egongela. 111.200 euro. 946 82 11 00.

**Elorrio.** Duplex berria salgai. 83 m². Hiru logela, bainugela, egongela eta sukaldea. 196.900 euro. 610 20 01 14.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai Intxaurtxuetan. Igogailua eta berogailua. Eguzkitsua. 943 79 12 98 edo 680 48 94 04.

**Mutriku.** Etxebizitza salgai. Solairu bi. Altzariz hornituta. Hondartzatik gertu. 616 76 66 73.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria.** Etxebizitza ematen da errentan, hiri erdigunean, uztailean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

**Almeria.** Etxebizitza ematen da errentan, hondartza aurrean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Artzamendin. Deitu 13:00etatik 15:00etara bitartean. 943 76 22 08.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 943 76 36 46.

**Laredo (Kantabria).** Apartamentua ematen da errentan. 943 76 44 34 edo 607 26 14 21.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 647 81 68 08.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen dut errentan, erdialdean. 943 79 87 59.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 649 62 23 07.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Ferixalekuan. 646 53 59 51.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Bolu auzoan. 659 31 36 87.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ibargarai kaleko 37an. 13.000 euro. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 690 32 91 84.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ozaetan. 943 76 00 12.

**Bergara.** Garaje plaza salgai Burdiñaten. 943 76 32 38.

**Oñati.** Garaje itxia salgai, plazatik oso gertu, Lope Agirre kalean. 20 m². 943 78 10 49.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** Etxabe komertziala salgai Bolu auzoan. 659 31 36 87.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 660 72 54 78.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Irakasle ikasketak bukatu dituen eta esperientzia handia duen 23 urteko neska euskalduna gertu goizez zein arratsaldez umeak zaintzeko. Ixone. 653 71 87 32.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko (etxeak, bulegoak, elkarteak, etab.). 943 77 02 46.

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 943 77 02 46.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Lau lagunek Kontabilitate Orokorreko eskola partikularrak jasoko genituzke. Xabi. 943 79 07 94.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Irakasle ikasketak dituen neska gertu eskola partikularrak emateko. Ixone. 653 71 87 32.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW** F650/ST motoa salgai. Oso ondo dago. Prezio ezin hobea. 696 21 55 75.

**Ford** Fiesta salgai. Ondo dago. 17:00etatik aurrera deitu. 656 77 89 94.

**Gas-gas** 250 Enducros motoa salgai. 1998koa. 616 84 75 51.

**Honda** Dominator motoa salgai. 650 cm3. Gorria. 2.000 euro (negoziagarria). 943 77 13 91.

**Karro-denda** salgai. Sango modeloa. Ondo dago. Muntatzeko erraza. 615 70 59 90.

**Mitsubishi** Space Wagon TD monobolumena salgai. 100.000 Km. 1997koa. Aire girotua. Ondo dago. Arratsaldez deitu. 656 71 87 50.

**Renault** 21 Megane autoa salgai. 610 43 20 19.

**Suzuki** Bandit 400 salgai, prezio onean. 639 48 81 91.

**Yamaha** Diversion 600 motoa salgai. Matrikula: SS-AL matrikula. Ondo dago. 656 75 47 58.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bañares (Errioxa).** Kanpinean dagoen 'mobil-home' delako bat salgai. Bi logela, komuna eta egongelaz gain, sukalde eta trastelekudun abantzea. 686 20 63 94 edo 696 02 69 70.

**Izozkailu** handi bat saldu nahi dut. 130 cm luze eta 60 cm zabal. Prezio onean. 943 76 16 58.

**Karro-denda** salgai, Alpen Kreuzer markakoa. Ondo dago. Eta sukaldea eta hozkailua ere salduko nituzke. Prezio ezin hobea. Deitu 20:00etatik 22:00etara bitartean. 943 79 92 72.

**Simaurra** salgai. 629 33 26 34.

**Trikitirako** akordeoia salgai. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 652 76 90 38.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Martxoaren 29an, arratsaldean, Errekabarren kalearen atzeko aldeko eserleku baten gainean Nikon 401 argazki-kamera utzi nuen ahaztuta funda barruan. 660 55 01 04.

**Arrasate.** Gernika Oinezkoen Zumardian urrezko eskumuturrekoa galdu nuen. Garrantzi handikoa da. Saritua izango da. 600 84 14 37.

**Bergara.** Aranerreka kalean motxila galdu nuen. Kaki kolorekoa. Barruan laugarren mailako Matematika liburua du, Iker Arnaizen izenean. 943 76 50 02.

**Bergara.** Ikastolatik Poligonorako bidean urdin koloreko betaurrekoak galdu nituen. Umeendako betaurrekoak dira. 943 76 00 48.

**Loro gris** batek ihes egin du etxetik. Norbaitek aurkitu badu, dei diezagula, mesedez. Saritua izango da. 943 58 50 27.

**LAN EGIN GURA DUZU? 943 44 45 09**

**JUSTIZIA** Ministerioak Euskal Herrirako lanpostu publikoak eskaintzen ditu: 42 laguntzaile, 10 agente eta 23 justizia ofizial. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**AIREPORTUAK.** AENAk eskainitako 250 lanpostu: airekontrolatzaileak. Eskakizuna: ingeleseko maila ertaina edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**AUTOESKOLAKO IRAKASLEA.** Diru-sarrerak: 1.500 euro inguru. Langabeziarik gabeko lanbidea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**SUHILTZAILEAK.** Lanean berehala hasteko. Egizu lan Euskal Herriko parkeetan. Lan baldintza ezin hobeak. Eskakizuna: eskola graduatua edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**GARRAIOLARIA.** Profesional bilakatzeko titulua lor ezazu. Hedapen prozesuan dagoen sektorea. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**ADMINISTRARIAK.** (Tekniko eta laguntzaileak). Laster bertako udal eta erakundeetarako deialdiak. Eskakizuna: eskola graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**UDALTZAINA.** Egizu lan bertako udaletan. Laster deialdiak. Eskakizuna: eskola graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**LIBURUTEGI** laguntzaileak. Bertako udal, agiritegi, dokumentazio-zentro, eta abarretan lan egiteko. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**ESKOLA GRADUATUA** edukita: harreragileak, lorezainak, txoferrak, atezainak, eta abar. Ofizio-funtzionario bezala udaletan eta erakundeetan lan egiteko. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**OSAKIDETZA.** Laster deialdiak: erizain-laguntzaileak, OLT/EUD (ATS/DUE) eta zaindariak. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

## IRAGARKI OFIZIALAK

BERGARAKO UDALA

**BERGARAKO UDALA LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ, BEHIN-BEHINEKO KONTRATUAREKIN, KANPOSANTURAKO PIOIA KONTRATATZERA ETA LAN-POLTSA OSATZERA DOA.**

**Izangaien baldintzak**
- Eskola ziurtagiria edo parekoa den titulazio maila izatea.
- Euskarako II. Hizkuntza Eskakizuna derrigorrezkoa kanposantuko pioi lanposturako.

**Instantziak aurkezteko epea**
- 2003ko maiatzaren 15eko 13:30ak arte.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2003ko apirilaren 4an. ALKATEAK

BERGARAKO UDALA

**BERGARAKO UDALA LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ OBRA ETA ZERBITZUBURUA KONTRATATZERA DOA.**

**Izangaien baldintzak**
- Aparejadore, Arkitektu Teknikoa, edo Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoa titulua izatea edo titulua lortzeko eskubideak ordainduak izatea.
- 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa. Hala ere 1990eko uztailaren 24ko Udal Osoko Bilkuraren erabakiari jarraituz, 3. hizkuntza eskakizuna dutenak ere onartuak izango dira, eta plaza ateratzen duenak urte eta erdiko epea izango du 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko. Horrela egingo ez balu, izendapena indargabetu eta eskubide guztiak galduko ditu.

**Instantziak aurkezteko epea**
- 2003ko apirilaren 23ko eguerdiko 13.30ak arte.

Oinarriak: 2003ko martxoaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2003ko apirilaren 4an. ALKATEAK

BERGARAKO UDALA

**HEZIKETA OKUPAZIONALEKO IKASTAROAK LANGABETUENTZAT**

Bergarako Udalak –INEMaren Zentro Homologatua- langabetuentzat Makina –Herramintako Operadore ikastaroa antolatu du

- **Makina-Herramintako Operadorea:** 309 ordu
- **Hasiera:** maiatzaren 5ean
- **Amaiera:** irailaren 26an
- **Tokia:** Goi mailako Lanbide Heziketako Batxilergo Institutoa Miguel Altuna
- **Ordutegia:** 15:00etatik 19:00etara
- Astelehenetik ostiralera
- **Ikastaroa doan da.**

Informazio eta izenematea:
Udaletxeko Enplegu Zerbitzuan. 943 77 91 24

Europako Gizarte Fondoaren dirulaguntzarekin.

## AIPAGARRI

### Iker Agirre

ARAMAIO



Arabako bertsolari txapelketa aurreko asteburuan hasi zen. Kanporaketa saio horretan Iker Agirre bertsolari aramaioarrak eskuratu zuen puntu gehien. Iker ez da, baina, txapelketa hau jokatuko duen aramaioar bakarra; Andere Arriolabengoak oraingo asteburuan jokatuko du lehendabiziko saioa.

### Maddalen Fdez. de Arroiabe

ARRASATE



Maddalen Fernández de Arroiabe arrasatearra azafata lanetan ibili da Euskal Herriko Itzulian. Bere lana, besteak beste, txirrindulari irabazleei sariak ematea izan da. Maddalen modeloa da, eta Gipuzkoako miss lehiaketan ere parte hartutakoa da; iaz aurkeztu zen lehiaketa horretara.

### Iratxe Azkarate

BERGARA



Gipuzkoako Ileapaintzaileen Elkarteko Talde Artistikoko kideak dira Iratxe eta Maider Azkarate, Donostia eta Oreretako lau lagunekin batera. Aurreko astean jokatutako ileapaintzaileen Gipuzkoako txapelketan erakustaldia egin zuten. Iaz, Maiderrek berak irabazi zuen txapelketa hori.

---

ESKER ONA

## Felipe De Benito Pura



**Bergara**n hil zen
2003ko apirilaren 6an,
82 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

---



**Ekain Olaziregi Alberdi**
Bergara • Apirilaren 8a • 3,620 Kg. Gurasoak: **Ibon Olaziregi** (Lezo) eta **Mirari Alberdi** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Marco Cabezas Nogueiras**
Arrasate • Apirilaren 9a • 3,260 Kg. Gurasoak: **Dorleta Nogueiras** (Arrasate) eta **Diego Cabezas** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



**Ugaitz Gruzeta Elkorobarrutia**
Eskoriatza • Apirilaren 9a • 3,365 Kg. Gurasoak: **Jose Antonio** (Eskoriatza) eta **Itsaso** (Eskoriatza). Argazkian, umea amarekin eta **Nagore** ahizparekin.



**Naia Pérez Marzán**
Antzuola • Apirilaren 7a • 3,500 Kg. Gurasoak: **Diego Pérez** (Bergara) eta **Cris Marzán** (Ermua). Argazkian, umea amaren besoetan.

---

ESKER ONA

## Juanita Zenitagoia Egidazu



**Arrasate**n hil zen
2003ko apirilaren 4an,
91 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

---

URTEURRENA

## Isidro Manzano Madinabeitia



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 13an,
11:30ean,
**Bergara**ko Sierbetako kaperan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

---

URTEURRENA

## Ines Lamarain Iturriaga



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 13an,
11:30ean,
**Bergara**ko Sierbetako kaperan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

---

ESKELA

## Juanita Zenitagoia Egidazu



**Arrasate**n hil zen
2003ko apirilaren 4an,
91 urte zituela

Iker Barandiaran lankidearen amama

---

URTEURRENA

## Jose Luis Miner Arrieta



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 20an,
12:30ean,
**Bergara**ko San Pedro parrokian

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

---

URTEURRENA

## Joxe Leon Larrañaga Larrañaga



Arrasaten hil zen 2002ko apirilaren 14an,
92 urte zituela.
Lehen urteurreneko meza
astelehenean, apirilaren 14an,
19:00etan, **Arrasate**ko
San Frantzisko Elizan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

---

ESKELA

## Flora Zabarte Beitia

Mariano Azkarateren alarguna

**Arrasate**n hil zen
2003ko apirilaren 8an,
92 urte zituela

Sergio Azkarate lankidearen amama

---

ESKER ONA

## Jose Andres Arietaleanizbeaskoa Larrañaga



**Oñati**n hil zen
2003ko apirilaren 3an,
59 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

---

URTEURRENA

## Andres Ezpeleta Gutierrez



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilaren 13an,
11:30ean,
**Antzuola**ko parrokian

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko etxekoen izenean.*

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 12**

Laino gutxi batzuk besterik ez ditugu izango zapatuan, eta ostarteak ere izango ditugu. Tenperaturak, gainera, gora egingo du, epeldu egingo du giroa; hego haizea ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Zaparradak.
**Errioxa:** Egun euritsua.
**Pirinioak:** Ostarteak.

**DOMEKA, 13**

Domekan okerrera egingo du eguraldiak eta oso egun lainotsua izango dugu. Euri txikia ere egin dezake. Hala ere, tenperaturak gora egingo du, eta hego haizea ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Egun eguzkitsua.
**Errioxa:** Egun eguzkitsua.
**Pirinioak:** Eguzkia.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**9,2º C**

ILARGIAREN ALDIAK: APIRILA

| ilberri | ilgora | ilbete | ilbehera |
|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 16 | 23 |

EGUZKIA: APIRILAREN 13a

Sortu 07:30 · Gorde 20:48

## URKULUKO URTEGIA

**Pixkanaka-pixkanaka beheraka doa Urkuluko urtegiko ur maila. Aurreko astean %90,12 zen urtegiko ur maila; oraingoan, berriz, %89,78 da.**

**% 89,7**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112)) SOS DEIAK**

### OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

### DEBAGOIENA

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

| | |
|---|---|
| GOITB | 943 71 23 96 • goitb@ goiena.com |
| Goienkaria | 943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com |
| Arrasate Press | 943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com |
| Berrigara | 943 76 03 97 • berrigara@goiena.com |
| Aretxagazeta | 943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com |
| Goibekokale | 943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com |
| Kontuola | 943 76 03 97 • kontuola@goiena.com |
| Txirritola | 943 71 25 11 • txirritola@goiena.com |
| Ze barri? | 943 79 86 21 • zebarri@goiena.com |
| Kontzejupetik | 943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net |
| Putz | 943 79 42 30 • putz@euskalnet.net |
| Arrasate Irratia | 943 71 17 31 • irratia@goiena.com |
| Oñati Irratia | 943 78 26 17 • irratia@oinati.net |
| Sustatu.com | 943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**



## HITZGEZIDUNAK

Luma

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Pl., izaki nanoa / Pl., nahas-tura trinko | | Musika nota / Apustua | | Ipar., berritsua |
| | | | | | | | |
| | | | Ez eme / Kanpo | | | Bokala / Pl., barazki mota | |
| Balakuak / * Deitura | | Partituren euskarri / Nau | | | | | |
| | | | | | | | |
| Arabako alderdia / Ald., intsektu mota | | | Zintzoak / Gider | | | | |
| | | | | | | | |
| Eguzki / Elaia | | | | Suitzako ibaia / * Izena | | | |
| | | | | | Modu atzizkia / Kaltzio oxido | | |
| Kontso-nantea / Binetak | | ...-tak, er-loju hots / 50 | | | | Bokala / Suari dariona | |
| | | | | | | | Herbe-here-ak |
| Bokala / Bizkaiko herria | | Zeinen / Bokala | | | | | |
| | | | ... Sociedad, futbol taldea | | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**ERRONDIA PAGATZERAKUAN**

Domeka goiz baten, an zeguan *Punteret* Bar Tupi-ko barra ertzian beste lagun batzurekin. Konturatu barik, sartu zan beste ertzetik bere tallerreko ugazaba. Errondia pagatzerakuan, esate detsa *Punteret*-i tabernarixak:

- Pagauta jaok.
- Zeinek pagau jok ba?
- Ire tallrerreko ugazabak.

Orduan, *Punteret*-ek esaten detsa beste puntan zeguan ugazabari:

- I, emen eztaukak zertan pagaurik. Ik tallerrian pagau biok eta ondo, gaiñera.

**GUARDIA ZIBILLAK ZAINTZEN**

*Punteret*, eibartar moduan, apurtxo bat farola zan eta batez be umoretsua. Berba errezekua zan eta naiko gora jasotzen zeban ahotsa. Beiñ batian, bera zeguan tabernan sartu da kanpotar bat eta Punteret-en berriketia entzunda, galdetu dotsa:

- Ori gizonoi zein dok? Ori eztok edozein!

Esaten zetsen *Punteret*-i zer galdetzen zeban gizon arek eta orduan, berak ataratzen dau poltsikotik ontzako urria, zidarrezko bi ogerleko eta milla pezetako billetia, eta diñotse:

- Esaixozue orri auze naizela!

Orregaitxik, naiz ta broman, esaten zeban Punteret-ek:

- Guk, dirua daukagunok, guardia zibillak euko biarko gendukiaz zaintzen metrotik metrora.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



### Zenbat apostolu daude Arantzazuko basilikaren fatxadan?

Oteiza hil da eta berarekin lotutako galdera bat dakargu gaurkoan, bere obra garrantzitsuetako bat Arantzazun dugula gogoratuz. 50eko hamarkadan Arantzazun egin ziren berrikuntzen artean Oteizak basilikako fatxadan egindako apostoluak daude. Asmatuko ote zenuke zenbat apostolu diren?

- Hamaika.
- Hamabi.
- Hamahiru.
- Hamalau.

**Erantzun zuzena:** Hamalau

## SOLUZIOAK



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | ● | I | ● | L | ● |
| | | | O | R | E | A | K |
| | | | ● | A | R | ● | A |
| ● | L | ● | A | T | R | I | L |
| M | A | N | T | X | O | L | A |
| ● | U | A | ● | O | N | A | K |
| O | S | U | K | A | K | R | A |
| ● | E | K | I | ● | A | A | R |
| E | N | A | R | A | ● | K | I |
| ● | G | ● | T | I | K | ● | A |
| B | U | L | E | T | A | K | ● |
| ● | A | ● | N | O | R | E | N |
| O | K | A | ● | R | E | A | L |

## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*
Arazoak familiartekoekin, batez ere, semealabekin. Bada, egizu berba haiekin, eta berehala konponduko da dena. Bestalde, lapurreta jasateko arriskua; hortaz, zaindu gehien estimatzen dituzun gauzak.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*
Zure gain era guztietako arduak hartzen dituzu, baina ezin dituzu guztiak bete; horren ondorioz, nagusien aurrean lotsagarri gera zintezke. Horren ildotik, ezer esan aurretik ondo pentsatu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*
Lan eta lan ibiliko zara eta ez duzu astirik izango familiakoekin egoteko. Horrez gainera, osasun arazoak izango dituzu. Bestalde, oso aste aproposa kontratuak sinatzeko eta akordioak egiteko.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*
Oso sentikor egongo zara eta edozergatik egingo duzu negar; sufritu egingo duzu. Eta jendea harritura geratuko da jarrera horrekin. Bestalde, familiartekoekin arazoak izango dituzu, eta daramazun bizimodua aldatzea eragingo dizu horrek.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*
Dena dakizula uste duzu, batzuetan tontakeriak besterik ez duzu esango, eta epe luzera damutu egin zintezke. Bestalde, galera ekonomikoak inbertsio ustelengatik. Azkenik, arnasa hartzeko arazoak izango dituzu, eta medikuarenera joan beharko duzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*
Dena jakin gura duzu, beti zabiltza ingurukoez gauzak jakin guran. Hori dela eta, ingurukoak haserretu egingo dira, eta gerta daiteke erantzun beroren bate edo beste ematea. Bestalde, zure proiektuak geldi daude, eta horien gainean hausnartu egin beharko duzu.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*
Beti zabiltza zure irabazietan eta proiektuetan pentsatzen, eta familia alde batea utzen duzu. Bada, aurpegiratu egingo dizute hori. Ahalegin zaitez egoera anbiguoak saihesten, bestela arazoak izan zenitzake-eta.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*
Bikotekidea baduzu, harengandik urrundu egingo zara eta zuen arteko harreman hotzak eragingo du orain arte izan duzuen harremana berriro planteatzea. Horrez gainera, neska/mutil bat baino gehiago amodio harremanak izan gurako ditu zurekin, eta horrek areagotu egingo du zuon bion egoera latza.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*
Den-dena garbi izan arren eta zure buruarengan konfiantza osoa izan arren, ahalegin zaitez ingurukoen iritziak kontuan hartzen. Bestalde, bikotekidearengandik manipulatua sentituko zara, eta elkarrengandik urrundu egingo zarete.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*
Galera ekonomiko handiak, bai inbertsio ustelengatik, bai gutizietan gastatzeagatik. Ahalegin zaitez zuhurtzia handiarekin jokatzen, eta ez egin inbertsiorik.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*
Ametsetan eta zure barne munduan ibiltzen zara uneoro, eta horrek galerak ekar diezazkizuke alor guztietan. Ahalegin zaitez jendearekin berba egiten. Bestalde, amodio harreman harmoniatsuak.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*
Uste duzu jendea zutaz aprobetxatzen dela, eta horrek jarrera hotza izatera eramango zaitu. Edozelan ere, edozein manipulatzeko gauza zara, eta gura duzun edozer lortuko duzu.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

## ‘Iluntzean’

ZAPATUA ETA DOMEKA/ **17:00**

### Pello Zabala gertu-gertutik ezagutzeko aukera

Pello Zabala: amezketarra, frantziskotarra, eguraldi kontuetan aditua... Nork ez du Pello ezagutzen? Baina askok ez duzue jakingo loreak zaintzea asko gustatzen zaiola, edo yoga eginez hasten duela eguna. Eguenean izan dugu geurean Aintzane Gardokik zuzentzen duen *Iluntzean* saioan, eta ikusterik izan ez zenutenok aukera bikoitza duzue: zapatuan eta domekan, arratsaldeko bostetan. Gogora ezazue saioa Aste Santuko oporraldien ostean itzuliko dela.



## ‘Berriak’

EGUNERO/ **20:00 / 21:00 / 22:00**

### Albistegiak izango dira nagusi datorren astean barrena

Aste Santuko oporrak ate joka ditugu dagoeneko. Goiena Telebistak jaiegun horietan eten egingo du ohiko programazioa. Oporrak hartu aurreko egunetan eta Pazko Astean, bestalde, albistegiak bakarrik eskainiko ditu GOITBk. Arratsaldean eta iluntzean, orduro, Gorka Etxabek eta Maider Osak aurkeztuko dituzte ibarreko albiste nagusiak. Baina gogora ezazue apirilaren 28an bueltatuko garela ohiko programazioarekin Goiena Telebistan.



## TELEBERRIAK

### Korrikaren gaineko saio berezia asteburuan ere bai

Eguaztenean eskaini zuen Goiena Telebistak Korrika 13k gure ibarrean barrena egindako ibilbidearen gaineko saio berezia. Eguraldia lagun, jendetza izugarria ibili da aurten antxintxika Korrikarekin. Domekan eta astelehenean hartutako irudi ederrak ikusteko aukera izan ez zenutenok asteburuan izango duzue ikusteko aukera.

### Oñatiko txokolatea berbagai ‘Astebete’-n

Gaur, egubakoitza, iluntzeko albistegiaren ondoren, 20:30ean, Goiatz Aranak aurkezten duen *Astebete* saioan Oñatiko txokolategintzaren historiaren gaineko erreportajea ikusteko aukera egongo da. Jakina da Oñatik historia luzea duela txokolategintzan, besteak beste, hangoa delako Zahor enpresa eta sasoi baten beste batzuk ere bazeudelako, Loiola, esaterako. Bada, orain, txokolategintzaren historia hori batzen dihardu Anton Azpiazu oñatiarrak. Hori dela eta, erreportajea egingo du GOITBk horren gainean.

### ‘Herrilan’-en azken saioa atzeratu

Oraingo asterako iragarrita zegoen *Herrilan* saioaren azken atala, Arrasateren gainekoa. Baina, arazo batzuk tarteko, saio hori atzeratu egin dute eta apirilaren 30ean eskainiko dute zuzenean. Alberto Gorritibereak Arrasateko alkate Xabier Zubizarretari egingo dio elkarrizketa.

# GOITBk mahai-inguru bereziak eskainiko ditu maiatzean, udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeez

*Herriz herri alkategaiekin eta Batzar Nagusietarako hautagaiekin, eta hauteskunde egunean beste saio bat*

ENEKO AZKARATE

**Goiena Telebistak dagoeneko zehaztuta dauzka maiatzaren 25eko hauteskundeak direla-eta eskainiko dituen saio bereziak. Maiatzaren 12tik 23ra bitartean 10 saio berezi egingo ditu eta hauteskunde egunean, iluntzean, beste bat.**

Maiatzaren 25ean izango dira udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak. Indar politikoak eta hautesleen plataformak buru-belarri dabiltza lanean eta batzuek dagoeneko aurkeztu dituzte hautagaiak eta egitasmoak. Hauteskunde kanpaina, baina, maiatzaren 9an, egubakoitzean, hasiko da ofizialki eta 23ra arte iraungo du. Bi aste horietan hamar saio berezi eskainiko ditu GOITBk. Batetik, herriz herrikako bederatzi saio, Debagoieneko herri guztien gainekoak. Mahai-inguruak izango dira, herri bakoitzeko alkategaiekin. Bestetik, Batzar Nagusietara aurkezten diren hautagaiekin beste mahai-inguru bat antolatuko du.



GOIENKARIA

Maiatzaren 25ean, hauteskunde egunean, saio berezia eskainiko du zuzenean.

**HAUTESKUNDE EGUNEAN, ZUZENEAN**

Horrez gainera, hauteskunde egunean saio berezia eskainiko du zuzenean, iluntzean: eskualdeko emaitzak datuen taula eta guzti, aurreko hauteskundeekiko aldeak, analisiak, eta abar eskainiko ditu GOITBk. Bai hori bai beste bederatzi saioak ere Gorka Etxabe GOITBko albistegietako arduradunak zuzendu eta aurkeztuko ditu. Bozketa eguneko saioan lau tertuliakide izango ditu alboan Gorka Etxabe kazetariak.

Bestalde, horrez guztiaz gainera, jakina, hauteskunde kanpainaren jarraipen zehatza egingo du GOITBk, eta gure ibarrean antolatzen diren ekitaldien berri emango du. Hauteskunde kanpainako ekitaldi horien berri eguerdiko eta iluntzeko albistegietan, orduro, izango dute Goiena Telebistako ikusentzuleek.

## KAMERAAURREAN



***“Erguineraino pasabidea jada zabalik dago, eta, bide batez, espero dugu laster Garagartzaraino ere helduko dela”.***

**Ino Galparsoro /** Arrasateko alkateordea
“BERRIAK” (2003-04-08)



***“Tamalez, gerraren gaineko beste erakusketa batzuk ere izango dira etorkizunean eta ikusiko ditugu irakiarren edota Hego Amerikako hainbat herritarren irudiak”.***

**Irune Zuloaga /** Sabino Arana elkargokoa
“BERRIAK” (2003-04-09)

## TELEBEGI/ Edorta Arana

# *Erregistroak*

**Belaunaldi baten bueltan, gazteleraz gaizki egitetik euskaraz eskas egitera pasatu gara. Lehen, zerbaiten itxura eman gurak erdarara bultzatzen zuen jendea. Gaztelera zen kontsiderazio soziala zeukan hizkuntza eta orduko eskolara joan izanaren seinale zen. Orain, bertokoa albo batera utzi eta euskara batura jotzen dugu daukagun kultura eta ikasketa mailak erakusteko. Hemengo euskararen gainetik ei dago batua, garbiagoa eta maila publikoan erabili beharko duguna.**

**Ez dakit horrela izan behar duen, baina, oraindik ere, penatu egiten nau bere etxeko euskaran eroso dabilen baserritar bat, kortan txarolezko zapatekin bezala, “hori nahi det” edo “iruditu zitzaidan” bezalakoak botatzen entzuten dudanean. Gustukoagoa daukat, plantak egiteko gogo barik ibiltzen direnen, euskara freskoa eta naturaltasunez erabilia. Horregatik, GOITBn ere, Bergarako azentua, Aramaioko aditza, Oñatikoen hitz arteko joskera kantaria, Elgetakoen tonua edo Aretxabaletakoena moduko hiztegia sumatu izan dut faltan inoiz.**


Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA
Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 19 81
Faxa: 943 71 19 82
GIPUZKOA
gure aukeraren zergatia
altzari independenteak > erosotasuna eta autonomia
materialen konbinazioa > harmonia

Goienkaria©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Ordezkaritzak: Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@goiena.com
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@goiena.com
Publizitatea: Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko apirilaren 11

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Itxaro Artola/Korrika kulturalaren arduraduna

***AEKrekin herri bat geroa lantzen, euskaraz eta Korrika". Hori aurtengo leloa. Zer eman nahi izan duzue aditzera?***

Bada garaia euskal gizartea beste berpizkunde baten atarian jartzeko, eta lan hori euskal herritar guztiok egin behar dugu; gure etorkizuna geuk erabaki ezean, beste batzuek erabakiko dute gure ordez.

**Euskal kulturak azken aldian jasan dituen erasoak direla-eta, esanahi berezia du aurtengo Korrikak?**

Sumatu dugu Korrikaren aurretik abian jartzen ditugun kanpainetan jendea amorratuta dagoela, eta Korrika amorru hori kanporatzeko eta gure aldarrikapenak kaleratzeko aukera ona da. Horregatik, parte hartzeari dagokionez ez ezik ekonomikoki ere arrakastatsua izango dela espero dugu.

**13. zenbakia du aurtengo Korrikak. Superstiziosoendako zenbaki txarra omen...**

Gure esku dago erakustea herri baten nahia superstizio eta malefizio guztien gainetik dagoela.

**Korrika 12k bertsolariak omendu zituen. Korrika 13k, nor?**

Belaunaldi oso bat omendu nahi izan dugu. 60ko hamarkada bukaeran eta 70eko hasieran euskal kulturari hainbat arlotan bultzada berezi bat eman zion jendea omendu dugu. Frankismopean bizi arren oztopo guztiak gaindituz aurrera eraman zuten beren ilusioa, eta guretako eredugarri dira.

**Ibilbideari dagokionez, zenbat herritatik pasatuko da Korrika 13?**

Aurtengo Korrika 270 herritatik pasatuko da. Izan dira protestak, norbere herritik pasatu ez delako, baina denetara iristea ezinezkoa da. Leintz bailarako alkateek, aurreko ekitaldien ostean, gutun bat bidali zuten AEKra, eskatuz Korrika ez zutela gaztetxoenek ezagutzen, aspaldian ez zelako bertatik egunez pasatu. AEKk aintzat hartu zuen eskari hori.

**Korrikaren helburua Korrika ospatu beharrik ez izatea da?**

Euskalgintza osoa jaio da desagertzeko helburuarekin. Oraindik zeregin handia dugu: transmisioa ziurtatzea, euskararen ofizialtasuna lortzea... Horiek lortu arte euskararen normalkuntza ez dugu erabat bermatuko. Bitartean, Korrikak eta euskararen aldeko gainerako mugimenduek izango dute zeregina.

**Zer moduz joan da Korrika orain arte?**

Espero bezala, oso arrakastatsua eta oso jendetsua ari da izaten.

**Ezerk harritu zaituzte?**

Jendearen berotasunak, Korrikari ongi-etorria egiterakoan.

**Domekan Iruñeko zezen plazan ez da zezenketarik izango, baina bai Korrikaren bukaerako ekitaldia.**

Bai, jaia izango da. Ea plaza betetzen dugun.




**"Uste dugu badela garaia euskal gizartea beste berpizkunde baten atarian jartzeko"**

**"Korrika gure aldarrikapenak kaleratzeko aukera ona da"**

**"Korrika oso arrakastatsua eta oso jendetsua ari da izaten"**

► *Arrasatearra / 33 urte / Korrikako antolatzailea*

## PIPERRAUTSA

## *Goldatu*

Azken erasoek, bereziki *Egunkaria*-renak, adierazpen publiko ugari eragin dute. Artikulu asko idatzi da eta elkarrizketa asko egin, aztertuz gertakari zehatzetatik harantzago, zalantzan jarriz norabide eta joerak. Esango nuke gure arteko izendun zenbait irten egin dela armairutik, eta ausartu agerian esaten orain arte pribatuan esaten zirenak.

Denbora laburrean bi elkarrizketa irakurri dizkiot Jon Sarasuari. Bat hemen bertan, GOIENKARIAn, eta bestea *Argia*-n. Lehenengoan azaltzen zuen bere ustea: aurrera egiteko ez digute balio indarrean dauden bi kultura politikoak, ez estrategia politiko-militarrean ardazten den ezker abertzaleak, ezta botere autonomikoan ardazten den nazionalismoak ere. Bigarren elkarrizketan hori azpimarratu eta metafora argigarri bat jaurtitzen zuen Jonek: "Ez da jorratzeko garaia, aitzurra azaletik pasatzekoa. Goldatzeko garaia da, goldea barrura sartu eta lurra iraultzekoa". Inoiz baino zorrotzago mintzo da aretxabaletarra elkarrizketa luzean. Zorrotz, zuzen eta ausart.

Horrelako ekarpenekin jar gaitezke bide berriaren bila. Ilunpekoek abisatu dute autokritika ez dela komeni, borrokarako morala jaten duelako. Baina armairutik irten direnen kalitatea eta kantitatea ikusita, uste dut kontu honek ez duela atzera bueltarik.

Beraz, zorroztu denok goldea eta prestatu idi parea. Goldatzeko garaia da.

MIKEL IRIZAR

IKER
SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42
ARRASATE

FAGOR

